

DONOSTIAKO UDALA

2017

**Udal aurrekontuen azterketa
genero ikuspegitik**



**Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián**

**Berdintasun bulegoa
Negociado de Igualdad**



Aurkibidea

1. Lege esparrua	4
2. Genero ikuspegidun aurrekontuak	5
3. Donostiako Udalak aurrekontuetan genero ikuspegia sartzeko egin duen bidea	6
4. 2016an garatutako prozesua. Aurreko txostenetako jasotako gomendioei buruzko balorazioa	8
5. Aurrekontu orokorrak	11
5.1. 2017ko inbertsioak	18
6. Aztertutako programak	20
6.1. Gizartea Babesteko eta Sustatzeko Jarduerak	22
6.1.1. Berdintasuna	22
6.1.2. Garapenerako lankidetzeta eta hezkuntza	25
6.1.3. Gizarte Ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa	28
6.1.4. Gizarte zerbitzuguneak	30
6.1.5. Prebentzioa, haurtzarora eta familia	31
6.1.6. Adineko pertsonen sustapena	33
6.1.7. Adinekoentzako egoitzak	35
6.1.8. Babespeko apartamentuak	36
6.1.9. Etxez etxeko laguntza	38
6.1.10. Gizarte larrialdietarako laguntzak	41
6.1.11. Gizarte Abegi Etxea	42
6.1.12. Gizarteratzea	43
6.2. Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena	45
6.2.1. Ikastetxeen funtzionamendua	45
6.2.2. Hezkuntza programak	46
6.2.3. Giza eskubideak	48



6.2.4. Kultur aniztasuna	50
6.2.5. Donostia Kultura	52
6.2.6. Musika eta Dantza Eskola	54
6.2.7. Gazteria	56
6.2.8. Donostia Kirola	58
6.3. Oinarrizko zerbitzu publikoak	59
6.3.1. Hiri mugikortasuna	59
6.3.2. Hirigintza	63
6.3.3. Bide publikoak	64
6.3.4. Herri argiteria	65
6.3.5. Parkeak eta lorategiak	66
6.4. Jarduera ekonomikoak	67
6.4.1. Hiri mantentze eta zerbitzuak: Zuzendaritza eta administrazioa	67
6.4.2. Proiektuak eta obrak	68
6.4.3. Donostia Sustaspena	69
6.4.4. DBUS	70
6.5. Jarduera orokorrak	71
6.5.1. Herritarren partaidetza	71
7. Gastu eraldatzailea 2017ko Udal Aurrekontuetan	73
8. Zintzilik geratutako gaiak	74
8.1. Hobekuntzak aurrekontuko programetan eta kontu sailetan	74
8.2. Genero eragina sakonago ebaluatzeko irizpideak	75



1. Lege esparrua

Udal araudia

- » Gobernu Batzarrak 2014ko apirilaren 25ean onartutako Donostiako Udalaren Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Planean jasotako 1.2. neurria: <<Donostiako Udalaren Aurrekontu orokorrak genero ikuspegitik lantzea eta gauzatzea >>.

Autonomia Erkidegoko araudia

- » 4/2005 LEGEA, OTSAILAREN 18KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKOA. 14. artikulua. <<Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan>>.
- » EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VI. PLANA. Gobernantza hobetzeko G9 neurria: Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea.
 - » G9.2 Aurrekontuak berdintasunean duen eraginaren aurretiko balorazioa egiten duten herri-administrazioen kopurua handitzea
 - » G9.3 Genero-ikuspegia aurrekontuetan txertatzeko jarduerak egiten ari diren herri-administrazioen kopurua handitzea.



2. Genero ikuspegidun aurrekontuak

Aurrekontu publikoek eragina dute jende talde bakoitzak (emakumeak eta gizonak, migratzaileak, adinekoak, gazteak eta haurrak) eskura dituen baliabideetan. Genero ikuspegia duten aurrekontuek bi helburu dituzte:

- 1) Aurrekontuek emakumeengan eta gizonengan zer eragin duten ezagutzea, aintzat hartuta, ahal den neurrian, beste diskriminazio ardatz batzuk ere, hala nola adina, migrazio egoera edo errentaren maila.
- 2) Berdintasuna sustatzeko tresna izatea. Genero mainstreaminga formula garrantzitsuenetako bat da, gaur egun, berdintasun eraginkorraren aldeko urratsak egiteko. Estrategia horren helburua da jarduera publiko guztiak genero ikuspegitik aztertzea, jarduera horiek genero desberdintasunak ez betikotzeko edo handitzeko.



3. Donostiako Udalak aurrekontuetan genero ikuspegia sartzeko egin duen bidea

Aurrekontu genero ikuspegidunak prestatzeko prozesua 2013ko ekainean hasi zen, Berdintasun Bulegoak lan jardunaldi bat antolatu zuenean Andaluziako Juntak gai horretan zuen esperientzia ezagutzeko. Jardunaldi hartan Udaleko langile politikoek eta zuzendariak parte hartu zuten, baita Programazio, Azterlan eta Aurrekontu Unitateko teknikariek eta aurrekontua osatzeko ardura zuten zenbait sailtako teknikariek ere.

2013ko uztailan, Berdintasun Atalak eta Ogasun Atalak metodologia bat adostu zuten. Bertan, aintzat hartzen ziren Andaluziako esperientziako elementu batzuk, baina Donostiako Udalaren neurria, konpetentzietara eta denboretara egokitzen saiatuta.

Handik aurrera, aurrekontu programei eta haiei lotutako jardueri eta langileei buruzko informazioa biltzen hasi ziren, Yolanda Yubeto eta Mertxe Larrañaga Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleen aholkuak aintzat hartuta.

2014ko otsailan, “Aurrekontuak genero perspektibarekin egiteko gomendio txostena” argitaratu zuten (aurrerantzean, 2014ko Txostena), ordurako Udalbatzak onartua, eta horrek ezarri zituen oinarri metodologikoa eta gomendioei jarraituta eman beharreko hurrengo urratsak. Horrez gainera, aldez aurretik jasotako informazioa aztertuta, prozesuan sakon landu beharreko lehentasunezko arloak zehaztu zituen, honako hauek:

- » Hiri azpiegiturak eta zerbitzuak
- » Mugikortasuna
- » Gizarte Ongizatea
- » Gizarte Sustapena
- » Herritarren partaidetza
- » Donostia Kultura

2014. urtean, gobernu taldeak aurrekontuen genero eraginari buruzko prestakuntza jaso zuen, eta lanerako eta prestakuntzarako saio bat egin zen aipatutako alorrekin eta Ogasuneko eta Berdintasuneko teknikariek.

2014ko abenduan, “**Udal aurrekontuen azterketa genero ikuspegitik - 2015**” txostena aurkeztu genuen, orduan proposamen fasean zegoen 2015eko aurrekontuen gainean.



Zenbait hilabeteko geldialdi baten ondoren, prozesuari heldu genion berriro, 2015eko azken hiruhilekoan. Programazio, Azterlan eta Aurrekontu Unitatearekin elkarlanean, 2015eko abenduan “**2016 udal aurrekontuen azterketa genero ikuspegitik**” txostena aurkeztu genuen, orduan proposamen fasean zegoen 2016ko aurrekontuen gainean. Azken horrek sartzen dituen aldaketa nagusiak bi dira:

- » Udal aurrekontuak soilik aztertu dira txostenean. Plantillaren eta kontratazioaren gaineko azterketa egin beharrez, txosten espezifikoak egin dira.
- » Aurrekontu programen arabera egituratu da txostena, atalen edo zuzendaritzen arabera azterketa egin beharrez.



4. 2016an garatutako prozesua. Aurreko txostenetako jasotako gomendioei buruzko balorazioa

2016an, eta aurreko txostenetan jasotako gomendioak aintzat hartuta, Aurrekontu Atala eta Berdintasun Atala, Eraberria enpresaren aholkularitza teknikoarekin, elkarlanean aritu dira udal aurrekontuetan berdintasuna txertatzeko prozesua berraztertu eta sustatzeko.

2106ko txostenean zehazki, 7. atalean, genero eraginaren ebaluazioan sakontzeko irizpide hauek jaso ziren:

- *Aurrekontu programen azterketa progresiboki handitzea eta genero ikuspegitik jarduera garrantzitsua duten udal enpresa eta erakunde autonomoak ere aintzat hartzea, hala Donostiako Sustapena SA, Musika eta Dantza Eskola eta Kiroletako Udal Patronatua.*

2016ko txostenean, 104 aurrekontu programetatik 22 (% 21,15), hau da, udal aurrekontuaren % 29,93. Hauek ziren:

- » Berdintasuna
- » Garapenerako lankidetzak eta hezkuntza
- » Gizarte ongizatea: Zuzendaritza eta administrazioa
- » Prebentzioa, haurtzarora eta familia
- » Adineko pertsonen sustapena
- » Adinekoentzako egoitzak
- » Apartamentu tutelatuak
- » Etxez etxeko laguntza
- » Gizarte larrialdietarako laguntzak
- » Gizarte abegi etxea
- » Gizarte zerbitzuguneak
- » Gizarteratzea
- » Ikastetxeen funtzionamendua
- » Hezkuntza programak
- » Giza eskubideak
- » Kultur aniztasuna
- » Donostia Kultura



- » Gazteria
- » Hiri mugikortasuna
- » DBus
- » Proiektuak eta obrak
- » Herritarren partaidetza

2013-2014an egindako Eragina – Gaitasunari buruzko galdeketaren emaitzekin bat, eta genero garrantzi eta eragin handiena irizpidea aintzat hartuta, azterketa aurrekontu programa hauetara zabaltzea erabaki zen:

- » Donostia Sustapena
- » Musika eta Dantza Eskola, Musika eta Dantza Eskola (Liburutegia) eta Musika eta Dantza Eskola (Txistulariak)
- » Donostia Kirola / Kirol instalazioak (Donostia Kirola) / Kirolak: Zuzendaritza eta administrazioa
- » Udaltzaingoa
- » Hirigintza
- » Etxegintza
- » Herri argiteria
- » Parkeak eta lorategiak
- » Hondartzak
- » Bide publikoak
- » Hiri mantentze eta zerbitzuak: Zuzendaritza eta administrazioa

Era horretara, azterketa 15 programa horietara zabaltzean, aurrekontuen % 61,25 aztertu da.

- *Aurrekontu programa bakoitzaren genero adierazleen identifikazioa hobetzea, atal, enpresa eta udal erakundeek datu horiek jaso eta Berdintasun Bulegari eman diezazkioten eta beren aurrekontuak ikuspegi hori kontuan izanda egin ditzaten.*

Hautatu diren aurrekontu programak hobeto ezagutzeko, Aurrekontu Ataleko eta Berdintasun Bulegoko teknikariak banan-banan elkarrizketatu dira hautatutako aurrekontu programen arduradunekin.



Bilera horien helburuak ziren proiektua zegokion udal atal, enpresa eta erakundeari azaltzea eta haren aurrekontu programari buruzko informazioa biltzea, batez ere 2. kapituluari buruz.

Informazio horri esker, funtsezko gaiak identifikatzeko eta kuantifikatzeko genero adierazleen sorta bat prestatu da. Funtsezko gaien artean egon daitezke, besteak beste, berdintasunerako kontu-sail espezifikoak, programa horiekin zerikusia duten zerbitzuen onuradunak, sexuaren arabera bereizita, genero ikuspegidun proiektuak edo berdintasunerako klausulak dituzten kontratuak.

- *Udal inbertsioen azterketan sakontzea. Inbertsio programaren genero eragina modu egokian aztertu ahal izateko, beharrezkoa da balioztatzen diren inbertsioei buruzko informazio xeheagoa izatea, zein lehenesten diren eta zertan inbertitzen den.*

Berdintasun Bulegoak txosten bat egin dio Aurrekontu Atalari inbertsio proposamenari dagokionez. Txosten horretan, lehenengo, inbertsioen genero garrantzia eta eragina aztertzeke, deskribapen nahiko xehea jaso behar dela adierazten da. Bigarren, dagoen informazioarekin genero ikuspegitik eragin positiboa izan dezaketela irizten zaion inbertsioak aipatu dira. Eta azkenik, zenbait inbertsio berraztertzeke proposamena egin da, eta inbertsio berriak egiteko ere bai.

- *Azterlan hau baliabide publikoen erabilera aldetik giltzarri diren beste bi analisirekin osatzea: kanpo kontratazioen eta pertsonal kontratazioen genero eragina balioztatzea.*

Gai horiez gain, aurrekontuaren genero eragina handitzeko hobekuntzak proposatu dira, hala aurrekontu hobekuntzak nola beste hobekuntza batzuk berdintasunerako politikak ezartzeari dagokionez.



5. Aurrekontu orokorrak

Txosten hau atxikita daraman aurrekontu proposamenaren arabera, Donostiako Udalak 416.260.408,47 € kudeatuko ditu 2017an, iaz baino 37.864.746,26 € gehiago; beraz, 10,01 handitu da udal aurrekontua, 2016koarekin alderatuta.

Gastu helburuak aintzat hartuta, gehien handitu direnak, ehunekotan, *jarduera ekonomikoak* (merkataritza, turismoa, garraioa, azpiegiturak...), % 18,12, dira; bigarren eta hirugarren, *oinarrizko zerbitzu publikoak* (herritarren segurtasuna, etxebizitza, hirigintza, ura eta saneamendua, hondakinak eta abar), eta % 15,06 *jarduera orokorrak* (gobernu organoak, administrazio orokorra...), % 13,47.

Hazkunde nabarmen txikiagoa da, *babes eta sustapen sozialeko jarduerena* (gizarte zerbitzuak eta berdintasuna), % 9,56, biak ere zaintzari eta bizitzaren sostengagarritasunari oso lotuta dauden helburuak eta genero ikuspegitik giltzarri direnak. *Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena* (osasuna, hezkuntza, kultura, kirola) % 4,64 txikiagotu da eta *Zor publikoa*, % 3,59.

Gastu arloa	2016		2017		Aldea	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
Oinarrizko zerbitzu publikoak	160.216.105,82€	%42,34	184.346.024,50€	%44,29	24.129.918,68€	%15,06
Babes eta sustapen sozialeko jarduketa	26.105.568,23€	%6,90	28.599.981,92€	%6,87	2.494.413,69€	%9,56
Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena	81.637.757,57€	%21,57	77.853.111,77€	%18,70	-3.784.645,80€	-%4,64
Jarduketa ekonomikoak	62.842.727,70€	%16,61	74.226.983,89€	%17,83	11.384.256,19€	%18,12
Jarduketa orokorra	31.353.937,54€	%8,29	35.577.319,58€	%8,55	4.223.382,04€	%13,47
Zor publikoa	16.239.565,35€	%4,29	15.656.986,81€	%3,76	-582.578,54€	-%3,59

Gastu politikak kontuan hartuta, *Azpiegiturak* (% 70,50), *Beste jarduera ekonomiko batzuk* (% 37,72) eta *etxebizitza eta hirigintza* (% 38,35), *Kirola* (% 23,01) eta *Administrazio orokorrak* (% 20,48) ataletan izandako igoera nabarmentzen da.

Txikiagotu egin dira *Pentsioak* (% 36,84), *Kultura* (% 16,59) Europako Hiriburutzan iaz egin zen inbertsioagatik, *Zor publikoa* (% 3,59), *Hezkuntza* (%2,32) eta *Finantza eta zerga administrazioa* (% 2,62).



Gastu politikak	2016		2017		Aldea	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK						
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	46.333.846,62 €	%12,24	48.556.192,09 €	%11,66	2.222.345,47 €	%4,80
Etxebizitza eta Hirigintza	50.551.505,47 €	%13,36	69.937.701,48 €	%16,80	19.386.196,01 €	%38,35
Komunitate-Ongizatea	52.019.416,74 €	%13,75	53.641.814,34 €	%12,89	1.622.397,60 €	%3,12
Ingurumena	11.311.336,99 €	%2,99	12.210.316,59 €	%2,93	898.979,60 €	%7,95
BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUKETA						
Erretiro pentsioak	38.000,00 €	%0,01	24.000,00 €	%0,01	-14.000,00 €	-%36,84
Enplegatuen aldeko beste prestazio	916.846,05 €	%0,24	943.492,38 €	%0,23	26.646,33 €	%2,91
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	25.150.722,18 €	%6,65	27.632.489,54 €	%6,64	2.481.767,36 €	%9,87
LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA						
Osasuna	2.117.946,70 €	%0,56	2.213.841,18 €	%0,53	95.894,48 €	%4,53
Hezkuntza	12.596.735,00 €	%3,33	12.304.368,63 €	%2,96	-292.366,37 €	-%2,32
Kultura	47.940.765,01 €	%12,67	39.985.651,24 €	%9,61	-7.955.113,77 €	-%16,59
Kirola	18.982.310,86 €	%5,02	23.349.250,72 €	%5,61	4.366.939,86 €	%23,01
JARDUKETA EKONOMIKOAK						
Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	16.585.977,96 €	%4,38	19.126.998,92 €	%4,59	2.541.020,96 €	%15,32
Garraio publikoa	35.472.864,43 €	%9,37	36.739.011,80 €	%8,83	1.266.147,37 €	%3,57
Azpiegiturak	10.705.609,31 €	%2,83	18.253.173,17 €	%4,39	7.547.563,86 €	%70,50
Beste jarduketa ekonomiko batzuk	78.276,00 €	%0,02	107.800,00 €	%0,03	29.524,00 €	%37,72
JARDUKETA OROKORRA						
Gobernu organoak	4.462.404,49 €	%1,18	4.917.416,81 €	%1,18	455.012,32 €	%10,20
Administrazio orokorra	19.361.390,15 €	%5,24	23.326.852,31 €	%5,60	3.965.462,16 €	%20,48
Finantza eta zerga administrazioa	7.530.142,90 €	%1,99	7.333.050,46 €	%2,00	-197.092,44 €	-%2,62
ZOR PUBLIKOA						
Zor publikoa	16.239.565,35 €	%4,29	15.656.986,81 €	%3,76	-582.578,54 €	-%3,59
GUZTIRA	378.395.662,21 €	%100	416.260.408,47 €	%100	37.864.746,26 €	%10,01



Banakatuago, **aurrekontu programen** arabera izandako aldaketak jaso ditugu.

Aurrekontu programak	2016		2017		Aldea	
	Guztira (€)	%	Guztira (€)	%	Guztira (€)	%
OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK	160.216.105,82	%42,34	184.346.024,50	%44,29	24.129.918,68	%15,06
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	46.333.846,62	%12,24	48.556.192,09	%11,66	2.222.345,47	%4,80
<i>Udaltzaingoa</i>	22.480.533,15	%5,94	22.612.752,87	%5,43	132.219,72	%0,59
<i>Zirkulazioaren eta aparkamenduaren antolamendua</i>	6.123.317,91	%1,62	6.107.325,48	%1,47	-15.992,43	-%0,26
<i>Eskailerak, arrapalak eta igogailuak</i>	1.049.761,00	%0,27	2.195.912,92	%0,53	1.146.151,92	%109,18
<i>Hiri mugikortasuna</i>	9.034.221,83	%2,39	8.943.561,86	%2,15	-90.659,97	-%1,00
<i>Herri-babesa</i>	149.369,15	%0,04	145.780,43	%0,04	-3.588,72	-%2,40
<i>Prebentzio eta su-itzaltze zerbitzua, eta sorospena</i>	7.496.643,58	%1,98	8.550.858,53	%2,05	1.054.214,95	%14,06
Etxebizitza eta Hirigintza	50.551.505,47	%13,36	69.937.701,48	%16,80	19.386.196,01	%38,35
<i>Hirigintza</i>	22.633.596,86	%5,98	29.918.492,13	%7,19	7.284.895,27	%32,19
<i>Empresa de gestión urbanística</i>						
<i>Etxebizitza</i>	17.902.609,09	4,73 %	28.948.822,47	%6,95	11.046.213,38	%100,00
<i>Eraikuntzen birgaitzea</i>	2.150.000,00	%0,57	2.750.000,00	%0,66	600.000,00	%27,91
<i>Bide publikoak</i>	3.050.560,29	%0,81	2.674.968,66	%0,64	-375.591,63	-%12,31
<i>Solaketa eta afaltatzea</i>	4.814.739,23	%1,27	5.645.418,22	%1,28	830.678,99	%17,25
Komunitate-ongizatea	52.019.416,74	%13,75	53.641.814,34	%12,89	1.622.397,60	%3,12
<i>Saneamendua</i>	5.467.874,99	%1,44	4.504.452,99	%1,08	-963.422,00	-%17,62
<i>Ura</i>	2.701.668,88	%0,71	3.171.080,45	%0,71	469.411,57	%17,37
<i>Ura eta saneamendua: zuzendaritza eta administrazioa</i>	744.394,75	%0,20	1.152.401,58	%0,28	408.006,83	%54,81
<i>Zabor bilketa</i>	6.586.622,10	%1,74	6.867.386,11	%1,65	280.764,01	%4,26
<i>Hondakinen kudeaketa: San Marko</i>	2.409.952,05	%0,64	2.494.558,26	%0,60	84.606,21	%3,51
<i>Hondakinen tratatzea: San Marko</i>	8.613.365,10	%2,28	9.518.499,82	%2,29	905.134,72	%10,51
<i>Bide eta Etxaurren garbiketa</i>	13.873.658,45	%3,67	13.592.527,42	%3,27	-281.131,03	-%2,03
<i>Polloe</i>	1.491.972,05	%0,39	1.743.140,18	%0,42	251.168,13	%16,83
<i>Herri argiteria</i>	4.084.908,37	%1,08	4.235.091,82	%1,02	150.183,45	%3,68
<i>Saneamendua eta arazketa: Añarbe</i>	6.045.000,00	%1,60	6.362.675,71	%1,53	317.675,71	%5,26
Ingurumena	11.311.336,99	%2,99	12.210.316,59	%2,93	898.979,60	%7,95
<i>Ingurumena: zuzendaritza eta administrazioa</i>	380.195,81	%0,10	352.108,09	%0,08	-28.087,72	-%7,39
<i>Parke eta lorategiak</i>	5.889.909,15	%1,56	6.707.720,44	%1,61	817.811,29	%13,88
<i>Artikutza</i>	949.682,38	%0,25	673.269,46	%0,16	-276.412,92	-%29,11



Aurrekontu programak	2016		2017		Aldea	
	Guztira (€)	%	Guztira (€)	%	Guztira (€)	%
<i>Cristina Enea</i>	520.000,00	%0,14	520.000,00	%0,12		%0,00
<i>Iraunkortasuna</i>	1.080.561,76	%0,28	1.463.302,00	%0,35	382.740,24	%35,42
<i>Hiriguneetako hots-, argi- eta atmosfera-kutsaduraren aurkako babesa</i>	229.290,61	%0,06	326.758,55	%0,08	97.467,94	%42,51
<i>Hondartzak</i>	2.261.697,28	%0,60	2.167.158,05	%0,52	-94.539,23	-%4,18
BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUKETAK	26.105.568,23	%6,90	28.599.981,92	%6,87	2.494.413,69	%9,56
Erretiro-pentsioak	38.000,00	%0,01	24.000,00	%0,00	-14.000,00	-%36,84
<i>Klase pasiboak</i>	38.000,00	0,01 %	24.000,00	%0,00	-14.000,00	-%36,84
Enplegatuen aldeko beste prestazio ekonomiko batzuk	916.846,05	%0,24	943.492,38	%0,23	26.646,33	%2,91
<i>Aldez-aurretik erretiratzeko sariak</i>	916.846,05	%0,24	943.492,38	%0,23	26.646,33	%2,91
Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena	25.150.722,18	%6,65	27.632.489,54	%6,64	2.481.767,36	%9,87
<i>Gizarte-ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa</i>	727.653,87	%0,19	832.133,26	%0,20	104.479,39	%14,36
<i>Gizarte zerbitzuen zentroak</i>	3.380.614,48	%0,89	4.003.730,54	%0,96	623.116,06	%18,43
<i>Lankidetzeta eta garapenerako hezkuntza</i>	1.379.800,13	%0,36	1.488.585,71	%0,36	108.785,58	%7,88
<i>Donostia Lagunkoia</i>			72.000,00		72.000,00	
<i>Apartamentu tutelatuak</i>	1.469.166,98	%0,39	1.524.915,77	%0,37	55.748,79	%3,79
<i>Gizarte abegi etxea</i>	1.227.262,84	%0,33	1.227.530,93	%0,29	268,09	%0,02
<i>Gizarteratzea</i>	2.903.564,04	%0,77	3.748.177,58	%0,90	844.613,54	%29,09
<i>Adin txikikoen prebentzioa eta familia</i>	2.837.671,85	%0,75	2.940.395,38	%0,71	102.723,53	%3,62
<i>Adineko pertsonen sustapena</i>	351.956,01	%0,09	345.742,88	%0,08	-6.213,13	-%1,77
<i>Zaharren egoitzak</i>	844.112,88	%0,22	844.112,88	%0,20	-	%0,00
<i>Etxez-etxeko laguntza</i>	7.553.882,25	%2,00	7.704.216,57	%1,85	150.334,32	%1,99
<i>Gizarte larrialdietarako laguntzak</i>	1.769.432,10	%0,47	2.153.287,00	%0,52	383.854,90	%21,69
<i>Berdintasuna</i>	705.604,75	%0,19	747.661,04	%0,18	42.056,29	%5,96
LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA	81.637.757,57	%21,57	77.853.111,77	%18,70	-3.784.645,80	-%4,64
Osasuna	2.117.946,70	%0,56	2.213.841,18	%0,53	95.894,48	%4,53
<i>Komunak</i>	384.700,00	%0,10	464.061,00	%0,11	79.361,00	%20,63
<i>Eskola osasuna</i>	173.415,28	%0,04	171.213,40	%0,04	-2.201,88	-%1,27
<i>Osasun publikoa eta animalien ongizatea</i>	708.247,22	%0,19	707.340,26	%0,17	-906,96	-%0,13
<i>Sorospen etxea</i>	255.404,20	%0,07	255.669,52	%0,06	265,32	%0,10
<i>La Perla bainuetxea</i>	596.180,00	%0,16	615.557,00	%0,15	19.377,00	%3,25
Hezkuntza	12.596.735,00	%3,33	12.304.368,63	%2,96	-292.366,37	-%2,32
<i>Hezkuntza: zuzendaritza eta administrazioa</i>	618.621,02	%0,16	573.682,60	%0,17	-44.938,42	-%7,26



Aurrekontu programak	2016		2017		Aldea	
	Guztira (€)	%	Guztira (€)	%	Guztira (€)	%
Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua	6.695.040,35	%1,77	7.010.697,23	%1,68	315.656,88	%4,71
Udalaren musika eta dantza eskola	4.116.049,32	%1,09	3.355.150,31	%0,81	-760.899,01	-%18,49
Heziketarako programak	223.329,03	%0,06	297.508,56	%0,07	74.179,53	%33,22
Giza eskubideak	599.826,22	%0,16	717.243,61	%0,17	117.417,39	%19,58
Kultur aniztasuna	343.869,06	%0,09	350.086,32	%0,08	6.217,26	%1,81
Kultura	47.940.765,01	%12,67	39.985.651,24	%9,61	-7.955.113,77	-%16,59
Kulturako administrazio orokorra: Donostia Kultura	27.696.407,22	%7,32	28.525.358,95	%7,34	828.951,73	%2,99
Udalaren musika eta datza eskola (Liburutegia)	137.220,32	%0,04	134.415,82	%0,03	-2.804,50	-%2,04
Tabakalera	3.978.085,00	%1,05	1.600.000,00	%0,38	-2.378.085,00	-%59,78
2016 Hiriburutza	8.481.224,69	%2,24	964.317,82	%0,23	-7.516.906,87	-%88,63
Kultura: sustatzea eta bultzatzea	1.470.000,00	%0,39	1.560.000,00	%0,37	90.000,00	%6,12
Udalaren musik-a eta datza- eskola (Txistulariak eta Emusik2016)	539.274,06	%0,14	552.127,10	%0,13	12.853,04	%2,38
Euskara	2.542.488,90	%0,67	2.648.092,65	%0,64	105.603,75	%4,15
Zaharren etxeak	1.142.986,50	%0,30	1.738.828,91	%0,42	595.842,41	%52,13
Gazteria	1.953.078,32	%0,52	2.262.509,99	%0,54	309.431,67	%15,84
Kirola	18.982.310,86	%5,01	23.349.250,72	%5,61	4.366.939,86	%23,01
Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa	2.952.540,55	%0,78	3.113.715,53	%0,75	161.174,98	%5,46
Kirolak: sustatzea eta bultzatzea	18.500,00	%0,00	-	%0,00	-18.500,00	-%100,00
Donostia Kirola	2.604.061,93	%0,69	2.577.061,93	%0,62	-27.000,00	-%1,04
Kirol instalakuntzak	3.145.000,00	%0,83	3.624.900,00	%0,87	479.900,00	%15,26
Kirol instalakuntzak (Donostia Kirola)	9.288.077,63	%2,45	8.597.369,79	%2,07	-690.707,84	-%7,44
Anoeta Kiroldegia	974.130,75	%0,26	5.436.203,47	%1,31	4.462.072,72	%458,06
JARDUKETA EKONOMIKOAK	62.842.727,70	%16,61	74.226.983,89	%17,83	11.384.256,19	%18,12
Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	16.585.977,96	%4,38	19.126.998,92	%4,59	2.541.020,96	%15,32
Azokak	8.450,00	%0,00	5.450,00	%0,00	-3.000,00	-%35,50
Donostia Turismo	3.302.401,50	%0,87	3.290.686,19	%0,79	-11.715,31	-%0,35
La Sirena aterpetxea	504.215,88	%0,13	472.272,03	%0,11	-31.943,85	-%6,34
Uliako aterpetxea	326.681,23	%0,09	305.022,09	%0,07	-21.659,14	-%6,63
Aterpetxeak: zuzendaritza eta administrazioa	109.023,25	%0,03	113.663,25	%0,11	4.640,00	%4,26
Ekonomi-garapena	551.053,45	%0,15	1.399.914,53	%0,34	848.861,08	%154,04
Donostiako Sustapena S.A.	11.784.152,65	%3,11	13.539.990,83	%3,25	1.755.838,18	%14,90



Aurrekontu programak	2016		2017		Aldea	
	Guztira (€)	%	Guztira (€)	%	Guztira (€)	%
Garraio publikoa	35.472.864,43	%9,38	36.739.011,80	%8,83	1.266.147,37	%3,57
Garraioaren arloko administrazio orokorra	158.812,00	%0,04	171.621,00	%0,04	12.809,00	%8,07
Bidaia-entzako hiri-garraioa	9.000,00	%0,00	9.000,00	%0,00	-	%0,00
Beste bidaiarien garraioa	31.000,00	%0,01	31.000,00	%0,01	-	%0,00
DBUS	34.974.052,43	%9,25	36.527.390,80	%8,78	1.553.338,37	%4,44
Garraio-azpiegiturak	300.000,00	%0,08	-	%0,00	-300.000,00	-%100,00
Azpiegiturak	10.705.609,31	%2,83	18.253.173,17	%4,39	7.547.563,86	%70,50
Hiri-mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa	1.166.097,98	%0,31	1.732.418,30	%0,42	566.320,32	%48,57
Proiektu eta obrak	5.450.658,33	%1,44	12.416.353,85	%2,98	6.965.695,52	%127,80
Uraren hornidura: Añarbe	4.088.853,00	%1,08	4.104.401,02	%0,99	15.548,02	%0,38
Beste jarduketako ekonomiko batzuk	78.276,00	%0,02	107.800,00	%0,02	29.524,00	%37,72
Kontsumitzailearen informaziorako udal-bulegoa	78.276,00	%0,02	107.800,00	%0,02	29.524,00	%37,72
JARDUKETA OROKORRA	31.353.937,54	%8,29	35.577.319,58	%8,55	4.223.382,04	%13,47
Gobernu organoak	4.462.404,49	%1,18	4.917.416,81	%1,18	455.012,32	%10,20
Udal taldeak	3.125.816,50	%0,83	3.176.488,65	%0,76	50.672,15	%1,62
Gobernu organoak	1.336.587,99	%0,35	1.740.928,16	%0,42	404.340,17	%30,25
Administrazio Orokorra	19.361.390,15	%5,12	23.326.852,31	%5,60	3.965.462,16	%20,48
Komunikazioak	600.553,48	%0,16	611.158,07	%0,15	10.604,59	%1,77
Eraikinak	1.904.616,96	%0,50	2.039.349,50	%0,51	134.732,54	%7,07
Informatika	6.154.399,91	%1,63	8.146.931,66	%1,96	1.992.531,75	%32,38
Ekialdeko Distritua			401.846,61	%0,10	401.846,61	
Lehendakaritza	1.241.195,24	%0,33	1.102.120,02	%0,26	-139.075,22	-%11,20
Agiritegia			491.138,36	%0,12	491.138,36	
Giza baliabideak: zuzendaritza eta administrazioa	2.954.221,89	%0,78	3.091.392,44	%0,74	137.170,55	%4,64
Idazkaritza nagusia eta lege zerbitzuak	1.283.895,07	%0,34	1.241.666,60	%0,30	-42.228,47	-%3,29
Barne zerbitzu orokorrak	1.073.324,36	%0,28	948.755,04	%0,23	-124.569,32	-%11,61
Itzulpen bulegoa	322.690,20	%0,09	388.413,87	%0,09	65.723,67	%20,37
Ibilgailuak	910.747,98	%0,24	818.835,01	%0,20	-91.912,97	-%10,09
Datu behatokia	50.000,00	%0,01	-	%0,00	-50.000,00	-%100,00
Udal Informazio Unitatea			239.686,74	%0,06	239.686,74	
Herritarren parte-hartzea	1.144.147,27	%0,30	786.376,20	%0,19	-357.771,07	-%31,27
Herritarrenganako arreta	1.442.249,40	%0,38	1.687.472,59	%0,41	245.223,19	%17,00
Hauteskundeak	30.000,00	%0,01	-	%0,00	-30.000,00	-%100,00
Ezusteak	249.348,39	%0,07	1.331.709,60	%0,32	1.082.361,21	%434,08



Aurrekontu programak	2016		2017		Aldea	
	Guztira (€)	%	Guztira (€)	%	Guztira (€)	%
Finantza eta zerga-administrazioa	7.530.142,90	%1,99	7.333.050,46	%1,76	-197.092,44	-%2,62
<i>Politika ekonomikoa eta fiskala</i>	3.790.078,26	%1,00	3.670.682,91	%0,88	-119.395,35	-%3,15
<i>Tributu kudeaketa</i>	3.740.064,64	%0,99	3.662.367,55	%1,00	-77.697,09	-%2,08
ZOR PUBLIKOA	16.239.565,35	%4,29	15.656.986,81	%3,76	-582.578,54	-%3,59
Zor publikoa	16.239.565,35	%4,29	15.656.986,81	%3,76	-582.578,54	-%3,59
<i>Zor publikoa</i>	16.239.565,35	%4,29	15.656.986,81	%3,76	-582.578,54	-%3,59
GUZTIRA	378.395.662,21	%100,00	416.260.408,47	%99,99	37.864.746,26	%10,01



5.1. 2017Ko inbertsioak

2017rako aurreikusitakoaren arabera, **93.590.901,18 euroren inbertsioak** egingo dira. Aurrekontu programen arabera, Hirigintza (% 27,31), Etxegintza (% 20,03), Proiektu eta obrak (%10,95) eta Anoeta Kiroldgia (% 5,34) ataletan egingo dira inbertsiorik handienak.

Eskura dugun informazioarekin ez dugu aztertzerik horiek zer eragin izango duten genero aldetik. Beraz, **etorkizunean informazio gehiago izan nahiko genuke aurreikusitako inbertsioen inguruan**. Alde horretatik, funtsezkoa iruditzen zaigu deskribapenean zehaztea inbertsioak zer premiari erantzuten dion, hala genero eraginaren aurretiazko azterketa egiteko nola, gero, proposatutako inbertsioen arteko lehenespenak balioztatzeko.

Eskura dugun informazioarekin, genero ikuspegitik garrantzitsuak izan daiteke:

- » **Hobekuntzak argiterian (Mantentzea)**. Irizten diogu segurtasuna eta emakumeek hirian duten segurtasun sententzia hobetu ditzaketela eta eragin zuzena izan dezaketela, beraz, (3) *Ingurune iraunkorra eta indarkeriarik gabekoa* eta (7) *Autonomia eta norberaren boterea* emakumeen eta gizonen Berdintasunerako III. Planeko esku-hartze lerroetan.
- » **Hobekuntzak komunitetan, berez garbitzen diren kabinetan (Mantentzea)**. Inbertsio horiek eragin zuzena dute (2) *Zaintza erantzunkideak* eta (7) *Autonomia eta norberaren boterea* III. Planeko esku-hartze lerroetan.
- » **Hobekuntzak zolaketetan, espaloietan, igarobideetan, arrapaletan, irisgarritasunean (Mantentzea)**. Oinezkoen, mendekotasunen bat duten pertsonen eta aulkian doan haur batekin egiten diren joan-etorriak erraztuko dituztenez, eragin zuzena dute (2) *Zaintza erantzunkideak* eta (7) *Autonomia eta norberaren boterea* III. Planeko esku-hartze lerroetan.
- » **Hobekuntza eta estalkiak haur parkeetan (Mantentzea)**. Inbertsio horiek zaintza hiriaren antolamenduan kokatzen dute eta eragin zuzena dute (2) *Zaintza erantzunkideak* III. Planeko esku-hartze lerroan.
- » **Urbanizatze-lanak**. Inbertsio horiek interesekoak dira, **betiere** oinezkoentzako aldeetan, **estalki, parke, erabilera komunitarioko aldeetan**; izan ere, hiriaren erabilera komunitarioa, hiriguneen eraberritzea eta garraiorako autoa ez den beste modu batzuk



erabiltzea errazten dute eta eragin zuzena dute (7) *Autonomia eta norberaren boterea* III. Planeko esku-hartze lerroan.

- » **Lurralde informazioa eta informazio kartografikoa (Hirigintza);** izan ere, berdintasun politiketarako informazio erabilgarria eskuratzen laguntzen dute eta interesgarriak dira (1) *Gobernantza* esku-hartze lerroko.
- » **Elkarteei lagatako lokalak egokitzea (Gizarte Ongizatea);** izan ere, zaintzarekin lotutako ardura sozialak bere gain hartzen dituzten erakundeen lana errazten du eta eragina du (2) *Zaintza erantzunkideak* III. Planeko esku-hartze lerroan.
- » **Auzo elkarteei lagatako lokalak egokitzea (Partaidetza);** izan ere, herritarren partaidetza errazten du, oro har, eta emakumeena, bereziki, eguneroko bizitzari dagokionez, eta eragina du (6) *Emakumeen parte hartze soziopolitiko eta ekonomikoa* III. Planeko esku-hartze lerroan.
- » **Liburutegi funtsak (Musika eta Dantza Eskola).** Inbertsio honek eragin zuzena du (4) *Jaiak eta kultura ez sexista* esku hartze lerroan Musika eta Dantza Eskola emakumezko egileen materiala erostea bermatzen baitu.
- » **Hiriko puntu kritiko batzuk ezabatu eta hobekuntzak beste batzuetan (Berdintasuna).** Eragin zuzena du indarkeriaren prebentzioan, (3) *Ingurune iraunkorra eta indarkeriarik gabekoa* III. Planeko esku-hartze lerroan.
- » **Emakumeen Etxeko mantenua (Berdintasuna).** Eragin zuzena du (6) *Emakumeen parte hartze soziopolitiko eta ekonomikoa* III. Planeko esku-hartze lerroan.
- » **Gazte eta haurrentzako ekipamenduak (Gazteria).** Ekipamendu horietan emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta emakume gazteen parte hartzea lantzen dira, besteak beste; eragin zuzena duten, beraz, (2) *Zaintza erantzunkideak*, (3) *Ingurune iraunkorra eta indarkeriarik gabekoa* eta (6) *Emakumeen parte hartze soziopolitiko eta ekonomikoa* III. Planeko esku hartze lerroetan.
- » **Donostiako bizitegi eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko laguntzak (Etxegintza).**



6. Aztertutako programak

107 aurrekontu programetatik 37 (% 34.6) xehekiago aztertu ditugu, udal aurrekontuaren % 61,56.

Aurrekontu programak	2017
Udaltzaingoa	22.612.752,87 €
Hiri mugikortasuna	8.943.561,86 €
Hirigintza	29.918.492,13 €
Donostiako Etxegintza	28.948.822,47 €
Bide publikoak	2.674.968,66 €
Herri argiteria	4.235.091,82 €
Parke eta lorategiak	6.707.720,44 €
Hondartzak	2.167.158,05 €
Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa	832.133,26 €
Gizarte zerbitzuen zentroak	4.003.730,54 €
Lankidetzeta eta garapenerako hezkuntza	1.488.585,71 €
Apartamentu tutelatuak	1.524.915,77 €
Gizarte abegi etxea	1.227.530,93 €
Gizarteratzea	3.748.177,58 €
Adin txikikoen prebentzioa eta familia	2.940.395,38 €
Adineko pertsonen sustapena	345.742,88 €
Zaharren egoitzak	844.112,88 €
Etxez-etxeko laguntza	7.704.216,57 €
Gizarte larrialdietarako laguntzak	2.153.287,00 €
Berdintasuna	747.661,04 €
Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua	7.010.697,23 €
Udalaren musika eta dantza eskola	3.355.150,31 €
Udalaren musika eta datza eskola (Liburutegia)	297.508,56 €
Udalaren musika eta datza eskola (Txistulariak)	717.243,61 €
Heziketarako programak	350.086,32 €
Giza eskubideak	28.525.358,95 €
Kultur aniztasuna	134.415,82 €
Kulturako administrazio orokorra: Donostia Kultura	552.127,10 €
Gazteria	2.262.509,99 €
Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa	3.113.715,53 €
Donostia Kirola	2.577.061,93 €
Kirol instalakuntzak (Donostia Kirola)	8.597.369,79 €
Donostiako Sustapena S.A.	13.539.990,83 €
DBUS	36.527.390,80 €



Aurrekontu programak	2017
Hiri-mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa	1.732.418,30 €
Proiektu eta obrak	12.416.353,85 €
Herritarren parte-hartzea	786.376,20 €
Aztertutako aurrekontu programak GUZTIRA	256.264.832,96 €
2017ko aurrekontuak GUZTIRA	416.260.408,47 €
	%
	%61,56



6.1. Gizartea Babesteko eta Sustatzeko Jarduerak

6.1.1. Berdintasuna

Berdintasun programa, *Gizarte Zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartua, kasu berezia da, ia aurrekontu osoa erabiltzen baitute modu batean edo bestean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko.

Berdintasunera zuzendutako programa espezifiko bat badagoenez, betetzen da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 14. artikuluan ezartzen duen agindua:

<<Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan>>.

Berdintasun politiken ikuspegi dualak proposatzen du, batetik, espezifikoki bideratzea baliabideak berdintasunera, ekintza positiboko politikak sustatu ahal izateko, eta, bestetik, beste programa batzuetara ere bideratzea baliabideak, zeharkakotasuna eta politika sektoriala lantzeko.

Programa horretarako 747.661,04 € izango dira 2017an, **udal aurrekontuaren % 0,18**; ehuneko xumea, baldin eta beste programa batzuekin konparatzen badugu, esate baterako, Lankidetzakoarekin (% 0,36) edo Gazteriakoarekin (% 0,54) eta, 2016koaren aldean, zenbateko absolutuetan handitu bada ere (42.056,29 €), **puntu bat galdu du udal aurrekontuetan duen pisuari dagokionez** (2016an udal aurrekontuaren % 0,19 zen eta 2015ean, % 0,20). Berez, udal gastua % 10 igo da eta kontu-sail hau, % 5,96.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Langileen gastuak	392.661,24	52,52
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	191.999,80	25,68
4	Transferentzia arruntak	106.000,00	14,18
6	Inbertsio errealak	57.000,00	7,62
GUZTIRA		747.661,04	100,00

Kapituluz kapitulu, eta 2016 urtearekin alderatuta, 1. kapitulua % 3,68 jaitsi da, erretiroa hartuko duen langile baten gizarte segurantza eta hirurtekoak doitzearen ondorioz; 6. kapitulua % 62,86 igo da zuzenketak eta gero, eta 2. kapitulua % 21 igo da, ondoren aztertuko dugun bezala.



1. kapituluaren eragina aintzat hartzen ez badugu, programa honen hazkundea % 18,48

da. Komeni da, handitu ezean, gutxienez berdintasun programaren pisua mantentzea eta, aldi berean, beste aurrekontu programetan berdintasuna lortzeko bitartekoak aktibatzea.

2. kapitulua

Berdintasuneko 2. Kapitulua % 21 handitu da 2017an, 158.619,13 eurotik 191.999,80 eurora igaro da eta. Esan bezala, 2. kapituluko gehiena (226.99 kontu-saila) eraldaketa feministarako jardueretara bideratuko da, eta **gehien nabarmentzen diren gastuak indarkeria sexistaren aurkako ekintzetarako (kontu-sailaren % 35,41) eta emakumeak ahalduntzeko (% 40,62) bideratutakoak dira.**

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
226.99	Eraldatze feministarako ekintzak	145.441,58
226.99.01	Indarkeria sexistaren aurkako ekintzak	51.500,00
226.99.02	Ikerketa lanak eta formazioa	3.477,12
226.99.03	Emakumeen ahalduntzea	59078,84
226.99.04	Prozesu partehartzailea Hiriko puntu kritikoen hobekuntzarako	8.192,81
226.99.05	Zaintza partekatua	8.192,81
226.99.07	III. Berdintasun Plana: inplementatu eta sistematizatu	15.000,00

4. kapitulua

Transferentzia arruntei dagokienez, bi kontu-sail daude aurrekontuan; lehenaren barruan, emakumeen elkarreentzako eta berdintasuna sustatzen duten elkarte mistoentzako diru laguntzak sartzen dira, eta bigarrenaren barruan, Emakumeen Etxearen mantentze-lanak; hitzarmen bidez egingo dira lanok eta 46.000 euroren kontu-saila izango da horretarako.

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
481.01	Irabazi-asmorik gabeko erakundeei diru-laguntzak	60.000,00
481.02	Irabazi-asmorik gabeko erakundeei aparteko diru-laguntzak	46.000,00
	4. kapituluaren guztizkoa	106.000,00

6. kapitulua

Inbertsioen kapitulan, 30.000 euroren kontu-sail bat dago hiriko zenbait puntu kritiko hobetzeko.



Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
601.01	Hiriko zenbait puntu kritikoen hobekuntza	30.000,00
601.02	Puntu kritiko batzuk ezabatu	22.000,00
622.99.01	Emakumeen etxeko mantenua	5.000,00
	6. kapituluaren guztizkoa	57.000,00

Aurreko txostenetan, lehentasunezko zat jotzen zen proiektuaren beharretara egokitzea Emakumeen Etxeko espazioa; izan ere, askoz ere emakume gehiago etortzen da orain (50.000 bisita baino gehiago), eta Okendo kaleko lokalean erabilgarri dagoen espazioa aintzat hartuta planteatu behar izaten dira jarduerak, hala kopuru aldetik nola motari dagokionez. Txostenetan gomendatzen zen beste espazio bat prestatzea Emakumeen Etxerako, sarbide errazekoa, eta Emakumeen Etxeko zerbitzu eta jardueretarako instalazio egokia izango dituen. 2. kapituluko kontu-sailarekin ezinezkoa da hori.



6.1.2. Garapenerako lankidetza eta hezkuntza

Garapenerako lankidetza eta hezkuntza programa, Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena gastu politikan sartua, 1.488.585,71 € da 2017an, **udal aurrekontuaren % 0,36.**

2016an, programa horretarako 1.379.800,13 € zeuden, udal aurrekontuaren % 0,37.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal Gastuak	189.190,36	12,71
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	114.211,35	7,67
4	Transferentzia arruntak	1.185.184,00	79,62
GUZTIRA		1.488.585,71	100,00

Garapenerako Lankidetza da bere jardueran genero ikuspegia gehien eta ondoen sartua duen programetako bat; izan ere, hori kudeatzen duen zuzendaritzak giza garapen sostengagarriko lankidetza eta heziketa plan gidari bat du, eta, hor esaten denez, genero ekitatea da printzipio gidarietako bat, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna, berriz, zeharkako ildo bat.

2. kapitulua

Garapenerako Lankidetza eta Hezkuntzako 2. kapitulua 114.211,35 € da 2017an, 2016an 103.393,46 € ziren; beraz, **% 10,46 hazi da.**

226.99 kontu-saila, 79.066,35 euroena, **garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren arloan sentsibilizatzeko programetara** bideratu da. Donostia Munduen Artean nabarmentzen da genero garrantziaren aldetik.

4. kapitulua

Programa honetako gasturik garrantzitsuen 4. kapituluan dago, 1.185.184,00 € gorde baitira **lankidetzako eta garapenerako proiektuak sustatzeko diru laguntza eta hitzarmenatarako.**

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
481.01	Lankidetza proiektuetarako diru-laguntzak	571.047,22
481.02	Sentsibilizazio eta garapenerako heziketa proiektuetarako diru-laguntza	224.308,20
481.03	Lankidetza proiektuen hitzarmenak	296.073,79
481.04	Sentsibilizazio eta garapenerako heziketa hitzarmenak	41.416,21
481.05	Larrialdi-laguntzara zuzendutako diru-laguntza lerro berria	52.338,58
4. kapituluaren guztizkoa		1.185.184,00



481.01 kontu-saila da handiena, 571.047,22 € bideratu baitira **kanpoko lankidetzako proiektuak** diruz laguntzera. **Diru laguntzak arautzeko oinarriek berdintasun klausula espezifikoak** dituzte eta diruz lagundutako proiektuak planifikatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko fase guztietan **sartzen dute genero ikuspegia**. 2016 urtearekin alderatuta, 100.000 € handitu da.

2016EAN DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUEN ONURADUNAK

GARAPENERAKO LANKIDETZA	Onuradunak	Proiektuan jasotako datuak			
		Emakumeak		Gizonak	
PAZ Y SOLIDARIDAD	11.458	9.675	%84,44	1.783	%15,56
TAU FUNDAZIOA	390	203	%52,05	187	%47,95
MUGARIK GABE	501	373	%74,45	128	%25,55
MUNDUBAT	537	271	%50,47	266	%49,53
SOPEPAZ	950	270	%28,42	680	%71,58
ACPP	100	100	%100,00	0	%0,00
BRIGADAS			%50,00		%50,00
MUGEN GAINETIK	280	180	%64,29	100	%35,71
CALCUTA ONDOAN	80.000	70.000	%87,50	10.000	%12,50
GUZTIRA	94.216	81.072	%86,05	13.144	%13,95

GKEen esku-hartzeak emakumeak dituzte ardatz, atzerrian gauzatzen dituzten garapenerako lankidetzako proiektuen onuradunen % 86,05 baitira. Horren arrazoia da, XX. mendeko 80ko urteetatik hona, hainbat ikuspuntutatik gomendatu izan dela emakumeak jartzea garapenerako lankidetzako proiektuen erdigunean, haiek pairatzen baitituzte gehien pobreziaren ondorioak.

481.03 kontu-saila ere atzerriko lankidetzako proiektuetara bideratzen da, eta, horretarako, hitzarmenak egiten dira Euskal Fondoa elkartarekin, Saharako Arabiar Errepublika Demokratikoarekin (RASD) eta RASDarekin lan egiten duten euskal elkarrekin. Lankidetzako Bulegoak berdintasun irizpideak erabiltzen ditu Euskal Fondoa elkarteko zein proiektu babestu erabakitzeko.

481.02 kontu-saileko diru laguntzak **lurraldean bertan sentsibilizazioko eta garapenerako hezkuntzako proiektuak** gauzatzera bideratuta daude, eta berdintasun klausulak dituzte. Onuradunen % 56,94 emakumeak dira.



2016EAN DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUEN ONURADUNAK

GARAPENERAKO HEZIKETA ETA SENTSIBILIZAZIOA	Proiektuan jasotako datuak				
	Onuradunak	Emakumeak		Gizonak	
MUGEN GAINETIK	141	81	%57,45	60	%42,55
ECONOMISTAS SIN FRONTERAS	300	140	%46,67	160	%53,33
BILADI	2.300	1.300	%56,52	1.000	%43,48
ALBOAN	590	356	%60,34	234	%39,66
MUGARIK GABE SARETUZ	10.057	5.368	%53,38	4.689	%46,62
MUGARIK GABE			%60,00		
SETEM HEGO HAIZEA	13	10	%76,92	3	%23,08
MEDICUS MUNDI	280	259	%92,50	21	%7,50
MUNDUBAT	26.260	15.227	%57,99	11.033	%42,01
GUZTIRA	39.941	22.741	%56,94	17.200	%43,06



6.1.3. Gizarte Ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa

Gizarte Ongizatea: Zuzendaritza eta Administrazioa programa, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartua, 832.133,26 € da 2017an, udal aurrekontuaren % 0,20.

2016an, 727.653,87 € zen (udal aurrekontuen % 0,19), beraz, 104.479,39 € gehiago da orain. Hazkundera, gehien bat, 6. kapituluan, inbertsio errealak kontu-sailean, biltzen da.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal Gastuak	406.064,83	48,80
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	27188,43	3,27
4	Transferentzia arruntak	298.880,00	35,92
6	Inbertsio errealak	100.000,00	12,01
GUZTIRA		727.653,87	100,00

II. Berdintasun Plana (2008-2013) gauzatzeko aldian, Gizarte Ongizatearen Zuzendaritzak, bere tamaina eta konplexutasuna zirela eta, erabaki zuen barne koordinazioko talde bat sortzea berdintasun ekintzak kudeatzeko. Talde hori honela osatuta dago: Berdintasun Atalarekin hitz egiten duen pertsona bat eta Zuzendaritza osatzen duten lau zerbitzuetako berdintasun arduradunak. Barne koordinazioko egitura hori aitzindaria eta erreferentea izan da Udalean, eta, horri esker, aurrera egin ahal izan dugu egituraren barruan genero ikuspegia sartzeko bidean.

2. kapitulua

Gizarte Ongizatea: Zuzendaritza eta Administrazioa programako 2. kapitulua % **7,68 handitu da 2017an**, 25.250,00 eurotik 27.188,43 eurora igaro baita.

2017rako aurrekontu proposamenean jasotako 226.09 kontu-sailean, **5000 euroren kontu-saila gorde da programa horretan III. Berdintasun Planeko ekitzak egiteko.**

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
226.09	Azterlan eta lan teknikoak	5.000,00

4. kapitulua

4. kapituluan 284.600 euroren kontu-sail bat (481.01) dago beren **jarduera gizarte ekintzaren arloan egiten duten irabazi asmorik gabeko elkarteentzako diru laguntzetarako**. Iazko zenbateko bera da.



Elkarteen tipologia

Gaixitasunen eta Adikzioen esparruan lan egiten duten 32 elkarte

Gizarteratzearen eta Inmigrazioaren arloan lan egiten duten 35 elkarte

Adinekoekin lan egiten duten 5 elkarte

Emakumeen 5 elkarte

Hurrekin lan egiten duten 10 elkarte

Gizarte harremanen arloan diharduten 12 elkarte

Elkarte eta proiektu horiek eragin zuzena dute zaintzei dagokienez eta, beraz, genero garrantzi handia. Diru laguntza horien deialdian berdintasunerako klausulak sartzea gomendatzen da, bai eta haien genero eragina aztertzea ere.



6.1.4. Gizarte zerbitzuguneak

Gizarte Zerbitzuguneak programa, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartua, 4.003.730,54 € da 2017an, **udal aurrekontuaren % 0,96**. 2016an, 3.380.614,48 € zen (aurrekontuen % 0,89); beraz, 623.116,06 € hazi da.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal Gastuak	3.194.251,61	79,78
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	258.678,93	6,46
6	Inbertsio errealak	550.800,00	13,76
GUZTIRA		4.003.730,54	100,00

Funtsezko programa da Gizarte Ongizate sailerako, haren izateko arrazoia; izan ere, gizarte zerbitzuguneen pertsonal gastuak biltzen ditu eta Donostian diren gizarte zerbitzu eta baliabideetarako **sarbidea** da.

Gizarte zerbitzuguneek arreta emandako familiak:

Gizarte zerbitzugunea	Arreta jaso duten familiak		Arreta lehen aldiz jaso duten familiak	
	Kop.	%	Kop.	%
Alde Zaharra-Erdialdea	981	%6,7	265	%7,4
Amara Berri - Loiola - Martutene	3.627	%24,8	842	%23,4
Larratxo - Altza	1.780	%12,1	343	%9,5
Gros - Egia	2.994	%20,4	700	%19,4
Antigua	1.861	%12,7	462	%12,8
Intxaurren	1.503	%10,3	234	%6,5
Bidebieta - Herrera	928	%6,3	156	%4,3
GLUZ (Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua)	977	%6,7	599	%16,6
Guztira 2015	14.651	%100,0	3.601	%100,0
Guztira 2014	13.615		3.080	
Hazkundera 14-15	%7,6		%16,9	

Ez dago sexuaren arabera bereizitako daturik arreta emandako pertsoneri dagokienez.



6.1.5. Prebentzioa, haurtzarora eta familia

Prebentzioa, Haurrak eta Familia programa, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartua, 2.940.395,38 € da 2017an, **udal aurrekontuaren % 0,71**. Programa horretarako diru izendapena, 2016koaren aldean, 102.723,53 € handitu da; iaz, 2.837.671,85 euroena zen, aurrekontuaren % 0,75.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Langileen gastuak	538.749,72	18,32
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	2.401.645,66	81,68
GUZTIRA		2.940.395,38	100,00

Arlo funtzionalean, Genero Indarkeriaren Biktima diren emakumeentzako Arreta Zerbitzua (**GIBEAZ**) **Prebentzioa, Haurrak eta Familia Zerbitzuen** barruan dago, eta, beraz, haren aurrekontu programaren mende. GIBEAZek ostatua, harrera, diagnostikoa, orientabidea, laguntza psikologikoa eta larrialdietako laguntza ekonomikoak ematen dizkie indarkeria matxistari aurre egiten dieten emakumeei. **Zerbitzuak 149 emakumeri eman zien arreta 2015ean**, eta baliabide hauek jarri zituen haien eskura:

Zerbitzua	2014	2015
Laguntza psikologikoa	81	65
Aholkularitza juridikoa	10	3
Aholkularitza, informazioa	187	149
Harrerako etxebizitzak	2	9
Larrialdiko harrera - Berehalako Arretarako Zentroa	26	9
Larrialdiko txekea	16	19
Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza (*)	19	8
Emakumeei akonpainamendua egitea	25	47

Kasu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak kudeatzen dituzten baliabideetarako sarbide dira udaleko gizarte zerbitzuak. Beraz, **Donostiako Udalak arlo honetan egiten duen ekarpen nagusia emakume erabiltzaileei kasu egiteko eta dagokien zerbitzura bideratzeko langileak dira eta 1. kapituluan jasota dago gastu hori.**

2. kapitulua

Prebentzioa, Haurrak eta Familia programako 2. kapitulua **% 4,91 hazi da 2017an**, 2.289.195,33 eurotik 2.401.645,66 eurora igaro baita.



Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
227.04	Kontratu sozio-kulturalak	2.361.322,85
227.04.01	Adikzioen Tokiko Planaren neurriak	72.620,00
227.04.02	Indarkeri matxistaren aurkako prebentzio programa	1.500,00
227.04.03	Arreta soziokulturalak eta psikosozialaren zerbitzua	1.387.967,14
227.04.04	Prestakuntza, aholkatze eta esku-hartze goiztiarra	899.235,71

2016ko aurrekontuetan, **indarkeria matxistaren aurkako prebentzio programa** berria sartu zen. Gizarte zerbitzuek identifikatutako arrisku egoeretan diren adingabekoekin esku-hartze selektiboak egitean datza. Kontu-saila 15.000 € zen. 2017an, kontu-saila (227.04.02) jaitسي egin da 1.500 €ra. Beharrezkoa da *murrizketa horren arrazoiei heltzea*, eta behar bada, *kontu-sail handiago bat* aurreikustea hurrengo aurrekontuetarako, programa beharrezkoa den auzo guztietan errepikatu ahal izateko.

Programa honetako 2. kapituluko beste jarduera batzuk hainbat kontratu publikoren bidez egiten dira: Psikologo komunitarioen kontratua (babesgabetasun arriskuan dauden adingabeekin lan egiten dute), esku-hartze goiztiarrerako kontratua (kasuak antzemateko programa); talde psikosozialaren eta gizarte hezkuntzako taldearen kontratua (bolumen handienekoa, 1.321.752,36 €) eta gazteen artean drogen kontsumoa eta adikzio digitalak prebenitzeko bi kontratu. Azken horietako bat genero ikuspegia aintzat hartuta diseinatu da, eta horren bidez zuzenean esku hartzen da gazteen lokal pribatuetan. *Gainerakoek ez dute berdintasun klausularik, eta genero garrantzia aintzat hartuta, komeni da nola sartu aztertzea.*



6.1.6. Adineko pertsonen sustapena

Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena gastu politikan sartutako **Adineko Pertsonen Sustapena** programaren bidez, Gizarte Ongizatearen Zuzendaritzak laguntza ematen die udalaren edo beren ekipamenduetan jarduten duten adinekoen elkarteei.

Programa 345.742,88 € da, udal aurrekontuaren % 0,08. 2016an, guztira, 351.956,01 € zen, udal aurrekontuaren % 0,09. 6.213,13 € jaitsi da.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Langileen gastuak	49.474,84	14,31
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	271.158,04	78,43
4	Transferentzia arruntak	25.110,00	7,26
GUZTIRA		345.742,88	100

2. kapitulua

Adineko Pertsonen programako 2. kapitulua % **2,09 gutxitu da 2017an**, 276.960,00 eurotik 271.158,04 eurora igaro baita.

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
227.04	Kontratu sozio-kulturalak	228.158,04
227.04.01	Dinamizazioa zentroetan	150.960,00
227.04.02	Topalekua-ko kudeaketa	77.198,04

Kapitulu honetatik gehiena 227.04 kontu-sailean dago, kontratu soziokulturalak kudeatzeko kontu-sailean; zehazki, 55 urtetik gorakoentzako “+55” aisialdiko udal programa, zahartze aktiboa sustatzeko dena, eta Aieteko Topalekua izeneko zentroaren kudeaketa. Genero ikuspegitik garrantzi handiena duena.

Berdintasunerako III. Planaren esparruan, erantzunkidetasuna eta osasuna sustatzeko ekintzak egitea aurreikusi da Plus 55 programan. Zoritxarrez, gaur egun ez dugu programa horren onuradunei buruzko daturik.

4. kapitulua

Programa honetako laugarren kapituluan, Hurkoa Fundazioari, Gurutze gorriari eta Nagusilan elkarteari zuzendutako diru laguntza nominatiboak jasotzen dira. *Horietako bakar batek ere ez dauka berdintasun klausula espezifikorik.*



Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
481.02	Hitzarmena Gurutze Gorriarekin	8.280,00
481.03	Hitzarmena Nagusilan Erretiratu Boluntarioekin	8.280,00
481.04	Hitzarmena Hurkoa Fundazioarekin	8.550,00
	4. kapituluaren guztizkoa	25.110,00



6.1.7. Adinekoentzako egoitzak

Adinekoentzako Egoitzak programarako 844.112,88 euroren kontu-sail bat dago 2. kapituluan, Zorroaga Fundazioari zuzendua, adineko autonomoei ostatu eta arreta zerbitzua emateko bizitoki ekipamenduetan.

Kontu-sail hori 2016ko aurrekontuetan jasotakoaren berdina da.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	844.112,88	100,00
TOTAL		844.112,88	100,00

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak sinatutako akordioaren arabera, Foru Aldundiaren ardura da mendeko pertsoneri arreta emateko gastu publikoa; eta Udalarena, ostera, adineko autonomoen gastua eta, berrikiago, mendekotasun maila txikia dutenena (1.1 mendekotasun maila). Eskumen banaketa hori adinekoentzako aurrekontu programetan islatzen da.

2. kapitulua

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
227.92	Autonomoak, Zorroagako egoitzako ekipamenduan	844.112,88
	2. kapituluaren guztizkoa	844.112,88

Baliabide honetan 67-72 pertsonarentzako tokia dago (batentzako edota birentzako logeletan), eta 2015an 67 pertsona egon ziren; hala ere, ez daukagu sexuaren araberako daturik. Zerbitzua zenbatek eskatzen duten eta estaldura tasa zenbatekoa den jakin nahiko genuke zerbitzua generoaren ikuspegitik egokia ote den balioesteko.



6.1.8. Babespeko apartamentuak

Apartamentu tutelatuak programa, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartua, 1.524.915,77 € da 2017an, udal aurrekontuaren % 0,37. 2016an, 1.469.166,98 € zen, aurrekontuen % 0,39..

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Langileen gastuak	140.076,96	9,19
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	1.344.838,81	86,69
4	Transferentzia arruntak	40.000,00	2,62
GUZTIRA		1.524.915,77	100,00

2. kapitulua

2016an, programa horretako 2. kapituluan 1.286.907,03 € zeuden, eta 2017an 1.344.838,81 € daude; beraz, 4,5% igo da.

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
227.92	Ostatu adineko pertsona autonomoentzat	912.591,06
227.92.01	<i>Etxebizitza komunitarioak</i>	190.000,00
227.92.02	<i>Balioanitzeko apartamentuak</i>	114.710,84
227.92.06	<i>Apartamentu sozialak: Berra</i>	265.000,00
227.92.07	<i>Fermin Calbetoneko apartamentuak</i>	89.364,22
227.92.08	<i>Zorroagako giza-apartamentuak</i>	130.000,00
227.92.09	<i>Zorroagako giza-apartamentuen amortizazioa</i>	123.516,00
227.96	Giza-apartamentuak	236.635,60
227.96.01	<i>EPVE-ko giza-apartamentuen atezaindegia</i>	76.635,60
227.96.02	<i>EPVE-ko giza-apartamentuen kudeaketa</i>	160.000,00
227.99	Eguneko arreta adineko pertsonentzat	111.965,00
227.99.0	<i>Eguneko arreta adineko pertsonentzat</i>	76.965,00
227.99.01	<i>Eguneko arreta adineko pertsonentzat Gros eta Amara</i>	35.000,00

Programa hori adineko autonomoentzako gizarte etxebizitzaren mantentze gastuetarako da. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren kasuan bezalaxe, gorago azaldutako eskumen banaketarekin bat, Udalaren bitartez eskura daitezke GFAk dependentziaren bat duten pertsonentzat dituen bitartekoak, esaterako, dependentziarako laguntzak eta egoitzetako ekipamenduak, eta Udalak kudeatzen ditu, zuzenean, autonomoak izanda ere eguneroko lan batzuetarako laguntza behar duten adinekoentzako beste baliabide batzuk. Baliabide horietan 177 pertsonarentzako tokia



dago, eta 2015an okupazioa ia 153 pertsonakoa izan da. Ez daukagu sexuaren arabera bereizitako daturik. Aurreko programan bezalaxe, zerbitzuaren eskaerari eta estaldura tasari buruzko datuak izan nahi genituzke, eta onuradunak hautatzeko irizpideak zein diren ere jakin nahiko genuke, balorazioa generoaren ikuspegitik egiteko.

Adineko autonomoentzako bizilekuen okupazioa

	Etxebizitza sozialen sarea	Egoitza ekipamendua
2015ko eskaera berriak	34	27
Itxaron zerrendan egonik plaza eskuratu dutenak	14	14
Atzer egitea eskaeran edo bajak itxaron zerrendan	17	8
Plaza okupatuak, guztira	153	67

Etxebizitza soziala

Plazak 2014

Berrako apartamentu sozialak	Gehienezko plazak: 39 (33 apartamentu, horietako 6 erabilera bikoitzeroako aukerarekin)
Zorroagako apartamentu sozialak	Gehienezko plazak: 27 (17 apartamentu, horietako 10 erabilera bikoitzeroako aukerarekin)
Elizaran apartamentu babestuak	Gehienezko plazak: 10 (8 apartamentu, horietako 2 erabilera bikoitzeroako aukerarekin)
Txara 2 apartamentu balioanitzak	Gehienezko plazak: 18 (18 apartamentu)
Ategorrieta, Berio, Bentaberri eta Marrutxipiko apartamentu sozialak	Gehienezko plazak: 47 Ategorrieta. Gehienezko plazak: 6 (4 apartamentu, 2 erabilera bikoitzeroako aukerarekin) Berio. Gehienezko plazak: 9 (8 apartamentu, bat erabilera bikoitzeroako aukerarekin) Benta-Berri. Gehienezko plazak: 6 (3 apartamentu bikoitz) Marrutxipi. Gehienezko plazak: 28 (14 apartamentu erabilera bikoitzeroako aukerarekin)
Monseko etxebizitza komunitarioak	36 plaza



6.1.9 Etxez etxeko laguntza

Etxez etxeko laguntza programa, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartua, 7.704.216,57 € da 2017an, udal aurrekontuen % 1,85. 2016an baino 150.334,32 € gehiago daude, orduan 7.553.882,25 € baitzeuden (aurrekontuen % 2).

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Langileen gastuak	93.030,69	1,21
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	7.611.185,88	98,79
GUZTIRA		7.704.216,57	100,00%

2. kapitulua

2016an, Etxez etxeko laguntza programako 2. kapitulurako 7.459.000,00 € zeuden, eta 2017an 7.611.185,88 € daude, % 2,04 gehiago, lizitazio berriarekin bat.

Etxez etxeko laguntza programako 2. kapituluaren barruan, ia kontratu bat bakarrik sartzen da, nolabaiteko dependentzia edo beharra duten gizon-emakumeei **etxez etxeko laguntza zerbitzua emateko kontratua**.

Erabiltzaileei etxean bertan ematen zaie zerbitzua, zaintza pertsonalean eta etxeko lanetan laguntzen. banakoei zein etxeko lanak egiteko eta/edo zaintza lanetarako mugaren bat duten familiei ematen zaie, eta are zaintzaileari atsedean emateko ere.

Kontratua 7.609.685,88€ da urtean, eta 2015ean 1.539 pertsona izan ziren zuzeneko onuradunak, horietatik % 74,6, emakumeak..

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
227.21.01	<i>Etxez-etxeko laguntza</i>	7.609.685,88
227.21.02	<i>Bestelako etxe edo komunitate zerbitzuak</i>	1.500,00
2. kapituluaren guztizkoa		7.611.185,88

Zerbitzua erabili duten emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da, erabiltzaile gehienak 75 urtetik gorakoak direlako eta Donostian 80 urte baino gehiago dituztenen % 68,8 emakumeak direlako.

2015an etxez etxeko laguntza jaso duten pertsonak:



Adina	Emakumeak	Gizonak	Guztira	%
<65 urte	145	102	247	16,1
65 eta 74 artean	101	47	147	9,6
75 eta 84 artean	362	120	482	31,3
85etik gora	545	117	662	42,0
Guztira	1.153	386	1.539	100
	%	74,9	25,1	100

Hortaz, erabiltzaile gehienak emakumeak dira, baita zerbitzuaren enpresa esleipendunak kontratatuta dituen langile gehienak ere, talde hori oso feminizatuta baitago. Asadek (Etxez etxeko laguntzaileen elkarte sindikala) 2015eko txostena egiteko emandako datuen arabera, gaur egun etxez etxeko laguntzaile gisa lan egiten duten 400 pertsonetatik 390 emakumeak dira, hau da, %97,5.

Beraz, zerbitzu hori giltzarria da generoaren ikuspegitik. Programa horretan egindako edozein murrizketak hiru talderi egingo lieke kalte: batetik, erabiltzaileei, ez bailukete kalitatezko zerbitzurik izango; bigarren, langileei, irabaziak murriztuko bailitzaizkieke, eta hirugarren, eta aurrekoak bezain garrantzitsuak, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak egingo ez lituzkeen lanak beren gain hartu behar lituzketen pertsoneri (kasu askotan etxean eta ordainsaririk gabe), gehien-gehienak emakumeak, ongi dakigunez.

Hortaz, positibotzat jotzen dugu Udal Gobernuak programa horri esleitutako kopurua mantentzea, nahiz eta komenigarria izango litzatekeen zenbateko hori handitzea, kontuan hartuta Donostian 27.910 pertsonak dituztela 70 urte baino gehiago, hau da, herritar guztien %15ek.

Bestalde, azken urteetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartu du Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak dependentzia duten pertsoneri eskainitako orduen kostu publikoa, eta Udalak, berriz, pertsona autonomoei eskainitakoak ordaindu ditu. Hala bada, nahiz eta enpresa esleipendunarekiko kontratua Udalak kudeatu, GFAk gastuaren zati handi bat hartu du bere gain, eta hori udal aurrekontuan islatuta ageri da, diru sarrerei dagokien atalean. Nolanahi ere, bi erakundeek berriki adostutakoaren arabera eta abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legea betetzeko, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren eskumena Udalak izango du, eta, hortaz, aurreikusteko modukoa da Aldundiaren ekarpena progresiboki murriztuko dela datozen urteetan eta Udalak konpentsatu beharko duela murrizketa hori.

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren magnitude nagusien bilakaera 2011tik 2014ra.



	2012	2013	2014	2015
Prezioa/zerbitzu ordua	19,27	20,43	20,53	20,41
Eskaera berriak	477	443	468	538
Arreta jaso duten pertsonak	1580	1518	1535	1539
Arreta orduak	416.909,00	418.164,70	418.486,60	402.338,25
Gastua, guztira	8.055.129,40	8.567.104,68	8.637.488,68	8.258.802,37
Udalaren ekarpena	1.873.202,95	2.354.134,77	4.361.757,12	3.046.637,13
Aldundiaren ekarpena	5.062.422,56	5.027.398,88	3.142.191,78	4.145.740,01
Erabiltzaileen ekarpena	1.119.503,89	1.185.571,03	1.133.539,78	1.066.425,23

Beraz, espero izatekoa da Udalak programa honi egingo dion ekarpena handitu egingo dela, azaldutako arrazoiengatik, baina komenigarria litzateke eskainitako zerbitzu orduen kopurua ere handitzea, bai eta zaindutako pertsonen kopurua ere.



6.1.10. Gizarte larrialdietarako laguntzak

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak programa, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartua, 2.153.287,00 € da 2017an, udal aurrekontuen % 0,52. 2016an, aurrekontu izendapena 1.769.432,10 eurorena zen, aurrekontuen % 0,47.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
4	Transferentzia arruntak	2.153.287,00	100,00%
GUZTIRA		2.153.287,00	100,00%

Gizarte Larrialdietarako Laguntzen bidez, aldizkakoak ez diren diru laguntzak ematen zaizkie ohiko nahiz ezohiko gastu zehatz batzuei aurre egiteko adina baliabiderik ez duten pertsonen gizarte bazterketari aurre egin eta bazterketa hori eragotzi edo arintzeko.

2015ean 2.951 eskabide egon ziren baliabide horretarako. Eskaera horietatik, 2.709 familiak (% 91,79) eskuratu zituzten Gizarte Larrialdietarako Laguntzak, eta **onuradunak 4.958 izan ziren** guztira. **% 66,4 emakumeak ziren.**

Adina	Emakumeak	Gizonak	Guztira	%
25 urtetik beherakoak	40	27	67	2,5
25-45 urte	595	401	996	36,8
45-65 urte	555	332	887	32,7
65 urtetik gora	608	151	759	28,0
Guztira	1.798	911	2.709	100
	%	66,4	33,6	100



6.1.11. Gizarte Abegi Etxea

Gizarte Abegi Etxea programa, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartua, 1.227.530,93 € da 2017an, udal aurrekontuen % 0,33. 2016ko zenbatekoaren parekoa (aurten 268,09 € gehiago).

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	773.408,33	63,01
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	454.122,60	36,99
GUZTIRA		1.227.530,93	100,00

2. kapitulua

2. kapitulua 454.122,60 € dira, 1.002,69 € gutxiago 2016an baino. Horren barruan sartzen dira **Mons pasealekuan kokatuta dagoen etxegabeentzako abegi etxea mantentzeko gastuak**. Etxegabeek gehienez 3 gau igaro ditzakete bertan. “Eskakizun txikiko” zentroa da, hau da, erabiltzaileek ez dute baldintzarik bete behar, baina ez dute esku-hartze sozialik jasotzen, soilik janaria, ostatua eta osasun laguntza, beharrezkoa izanez gero. 2014an, 3.125 sarrera izan ziren, 2.035 pertsona desberdinenak; horietatik 893, lehenengo aldiz joan ziren zentrorra. Guztira, 13.550 ostatu gau izan dira; batez besteko okupazioa 38,33 pertsonakoa izan da eguneko, eta batez besteko okupazio indizea, berriz, % 92,5. **Batez ere gizonek erabiltzen dute (% 87,6)**.

Komenigarria litzateke informazio gehiago izatea emakume etxegabeei buruz, zergatik ez diren baliabide horretara joaten, eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak hartzea.



6.1.12. Gizarteratzea

Gizarteratzea programa, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartua, 3.748.177,58 € da 2017an, udal aurrekontuen % 0,90. 2016an, 2.903.564,04 euroren diru izendapena izan zuen kontu-sail honek, aurrekontuen % 0,77.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	463.235,70	12,36
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	1.547.208,68	41,28
4	Transferentzia arruntak	1.075.642,00	28,70
6	Inbertsio errealak	412.971,00	11,02
7	Kapital-transferentziak	249.120,20	6,64
GUZTIRA		3.748.177,58	100,00

Gizarte Ongizateko beste aurrekontu programa batzuekin gertatzen den bezala, zerbitzu honen giltza zerbitzua ematen duten udal langileak dira, eta eskaintzen dituzten baliabideak, berriz, beste erakunde edo beste udal zerbitzu batzuetatik datoz, gehien-gehienak.

7. kapituluko kontu-sail berria 65 urtetik gorako pertsonen etxeetan hobekuntzak egiteko laguntzetarako da. Populazio talde horretan, % 60,8 emakumeak dira.

2. kapitulua

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
227.04	Kontratu soziokulturalak	1.274.708,68
227.04.00	<i>Gaueko arreta zentroa (laguntza teknikoa)</i>	358.500,00
227.04.01	<i>Gizarteratze hitzarmenak (laguntza-programa)</i>	187.308,64
227.04.02	<i>Giza-larrialdietan esku hartzea</i>	472.500,00
227.04.04	<i>Eguneko arreta zentroa</i>	256.400,04

Gizarteratze programako 2. kapituluaren barruan, mantentze gastuak eta larrialdietarako eta gizarteratzeko zentroekin eta programekin zerikusia duten hainbat kontratu daude sartuta, bai eta zenbait laguntza ekonomiko ere. 2016koarekiko aldea, 178.124,10 € gehiago da, programa berriei zor zaie.

Gizarteratzeko funtsezko zerbitzu bat **gizarteratzeko eta laneratzeko diagnostikoak eta baliabideak** dira. Gizarteratzeko eta laneratzeko diagnostiko pertsonalizatuak Gizarte Zerbitzuguneetan egiten dira. 2015ean, 68 fitxa bete zituzten guztira, *21 emakumeenak (% 30,9) eta 47 gizonenak (% 68)*. **Fitxen kopurua nabarmen jaitsi zen 2014 urtekoarekin alderatuta, eta**



emakumeen fitxen pisua ere bai; izan ere, orduan, 257 fitxa bete zituzten, 108 emakumeenak (% 42,0). Diagnostikoa gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbidea osatzeko lehen urratsa da. Ibilbide horien barruan, Donostia sustapenarekin lankidetzan, prestakuntzako eta/edo laneko baliabideak eskaintzen dizkiete egungo krisi ekonomikoari begira ahulenak diren taldeei: 45 urtetik gorako gizon-emakumeak, 30 urtetik beherakoak, iraupen luzeko langabetuak, emakumeak, DSBE edo DSBL jasotzen duten pertsonak eta ezinduak.

2015ean, beste **enplegu programa bat** egin zen **Eskualdeko Enplegu Planaren barruan, Lanbidek diruz lagunduta**, eta horri esker, 40 pertsona kontratatu ziren sei hilabetez (lanaldiaren % 65 eta lanaldiaren % 110 bitarteko kontratuak) garbiketa lanetan, iturgintzan, hiri hondakinen begirale gisa eta areken txukunketan. Gizarte Ongizateko 84 izangaietatik, 33 kontratatu zituzten; zehazki, *16 emakumeak* (% 48.5) eta 14 gizonak (% 51,5) ziren.

2015ean lehen aldiz jarri zen abian **Gidari Zu Zeu enplegu programa**, Gizarte Zerbitzuen erabiltzaile langabetuei enplegua bilatzen laguntzeko programa. Horretarako, lau lantalde jarri ziren abian, bilaketa prozesua eurek gidatzeko eta enplegua autonomiaz aurkitzeko tresnak eskuratzeko xedearrekin. Programa horretan 24 pertsonak parte hartu dute, horietako *7 emakumeak* (% 29,2) eta 17 gizonak (% 70,8).

Gizarteratzearen alorreko enprekin elkarlanean, esaterako, **Emaus Fundazioarekin eta Kooperarekin**, enplegurako prestakuntza eta lan egitasmo bat eskaini zaie 7 pertsonari, *horietako 5 (% 71,4) emakumeak*.

Beste programa batzuk daude, deskribatu ditugun laneratzeko programa horien aurretikoak, lana aurkitzeko pronostiko baxuko pertsonentzat oinarritzko gaitasunak eskuratzera zuzenduak (**Elkarrekin programa**), edo gaitasun pertsonalak eta sozialak eskuratzera zuzenduak, laneratzeko programetan sartu aurreko pauso gisara (**Bidean programa**). Bi programa horien erabiltzaile gehienak gizonak dira (% 73,7, 61 onuradunetatik). Badago beste **programa espezifiko bat emakume ijitoentzat** xede duena prestakuntza ematea ohitura eta gaitasun sozioprofesionaletan eta pertsonaletan. Programa horretan, *16 emakumek parte hartu zuten*.



6.2. Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena

6.2.1. Ikastetxeen funtzionamendua

Ikastetxeen Funtzionamendua programa, *Hezkuntza* gastu politikan sartua, 7.010.697,23 € da 2017an, udal aurrekontuen % 1,68. 2016an, 6.695.040,35 euroren diru izendapena izan zuen kontu-sail honek, aurrekontuen % 1,77.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	1.651.332,70	23,56
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	4.779.364,53	68,17
6	Inbertsio errealak	580.000,00	8,27
GUZTIRA		7.010.697,23	100,00

2. kapitulua

Ikastetxeen Funtzionamendua programako 2. kapituluan 4.779.364,53 euroren izendapena egin da 2017rako. 2016an, 4.691.789,72 € ziren, % 1,87 handitu da beraz.

Ikastetxeen Funtzionamendua programaren barruan sartzen dira sare publikoko lehen eta haur hezkuntzako eskola-eraikinen mantentze-lanak: besteak beste, eraikin guztien garbiketa gastuak hartzen ditu, 3.271.608,96 €, bai eta argindar, gas, konponketa eta obra gastuak ere.

6. kapitulua

6. kapituluan, bi kontu-sail izendatu dira; bata, 330.000 eurorena, ikastetxeak hobetzeko (Eusko Jaurlaritzarekin), eta bestea, 250.000 eurorena, Udalaren ikastetxeetan obrak egiteko.



6.2.2. Hezkuntza programak

Hezkuntza Programak egitasmoa, *Hezkuntza* gastu politikan sartua 297.508,56 € da 2017an, udal aurrekontuen % 0,07. 2016an, 223.329,03 € zen (% 0,06).

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	51.222,21	17,22
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	85.000,00	28,57
4	Transferentzia arruntak	161.286,35	54,21
GUZTIRA		297.508,56	100,00

2. kapitulua

Hezkuntza programak egitasmoko 2. kapituluko diru izendapena 70.000 euro handitu da, aurkeztutako zuzenketei esker. Kopuru honetatik, 55.000 € berdintasunerako eta genero indarkeriaren prebentzioara programei zuzenduak egongo dira.

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
226.99	Beste gastu batzuk	15.000,00
226.99.01	Berdintasunerako programa	25.000,00
226.99.02	Genero indarkeriaren prebentziorako programa	20.000,00
226.99.03	Giza eskubideen dibulgaziorako programa	25.000,00
4. kapituluaren guztizkoa		85.000,00

4. kapitulua

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
481.01	Ikastetxeentzako eta ikaskuntzarekin zerikusia duten elkarreentzako diru-laguntzak	124.800,00
481.02	EHIGE Gurasoen Elkartea: Euskal Eskola Publikoaren Jaia	2.700,00
481.03	Ikertze: Hip Hip Hurri	6.916,35
481.04	Baikara: 2016ko proiektuak	20.000,00
4. kapituluaren guztizkoa		161.286,35

Ikastetxeetarako eta irakaskuntzarekin lotutako elkarreentzako diru laguntzek 4. kapituluko 124.800,00 € hartzen dituzte eta haien oinarri arautzaileetan sartutako balioespen irizpideen artean ez dago berdintasunarekin lotutakorik. Komenigarria izango litzateke hori egitea, *diruz lagundutako proiektuek genero ikuspegia edukitzea sustatzeko*. Gauza bera gertatzen da hitzarmen bidez ematen diren laguntza zuzenekin. Komeni da *berdintasuneko klausulak sartzea* hezkuntzaren



arloko elkarteekin izenpetutako hitzarmenetan, horrela bermatuko baita koedukazioa diruz lagundutako jardueretan .

Bai eta Hip Hip Hurri haurrentzako aisialdiko jardueren programan ere, genero ikuspegitik garrantzitsua baita.

Zientziari So programak (8.228 €), UPV-EHUK sustatuak, zientziarako zaletasuna piztu nahi du lehen hezkuntza amaitzen ari diren ikasleen artean, eta aldi berean, genero-estereotipoak apurtu ere bai; 226.99 “Beste hainbat gastu” partidan sartuta dago.



6.2.3. Giza eskubideak

Giza Eskubideak programa, *Hezkuntza* gastu politikan sartua, 681.243,61 € da 2017an; udal aurrekontuen % 0,16. Programa horretako diru izendapena, 2016koaren aldean, 81.417,39 € handitu da (% 13,57). 2016an diru izendapena 599.826,06 € izan zen, pisua bera, ordea, aurrekontuetan ehunekotan.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	203.041,76	28,31
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	423.401,85	59,03
4	Transferentzia arruntak	90.800,00	12,66
GUZTIRA		717.243,61	100,00

2. kapitulua

Giza Eskubideak programako 2. kapitulua 87.764,98 € handitu da 2016tik 2017ra, 335.363,87 eurotik 423.401,85 eurora igaro baita.

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
226.99	Beste hainbat gastu	320.622,00
226.99.01	Oroimen historikoa	22.500,00
226.99.02	Sentsibilizazio eta kontzientziazio programak	40.274,98
226.99.03	Zinemaldia eta giza eskubideak	133.847,00
226.99.04	Bakea eta elkarbizitza munduan	19.000,00
226.99.05	Errefuxiatuen harrera	1.000,00
226.99.06	Oroitzepenrako ekintzak eta biktimen aitortza	24.000,00

2. kapituluaren barruan sartuta daude oroimen historikoa berreskuratzeko kontu-saila, bakean eta giza eskubideen errespetuan oinarrituriko hezkuntza eta prestakuntza bultzatzeko nahiz normalizazio politikoari laguntzekoa.

226.99.02 Sentsibilizazio eta kontzientziazio programak kontu-sailean 5.000 euro daude **ekainaren 28ko LGTBQ kanpainarako**.

Programa honen barruan sartutako jardueren artean **Giza Eskubideen Zinemaldiak** du hedapen handienetakoa. Zinemaldi hori Giza Eskubideen Atalak antolatzen du Donostia Kulturarekin eta beste eragile batzuekin batera.



Giza Eskubideen Atalak urteak daramatza Berdintasun Atalarekin lanean Berdintasun Plana aplikatzeko; beraz, haren progamek, gehiago edo gutxiago, badute genero ikuspegia.

4. kapitulua

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
481.01	Pakearen eta Giza Eskubideen proiektuetarako diru-laguntzak	50.300,00
481.02	Oroimen historikoa berreskuratzeko proiektuetarako diru laguntzak	18.000,00
481.03	Euskal Herriko Unibertsitateari Giza Eskubideen Ikastarorako	22.500,00
	4. kapituluaren guztizkoa	90.800,00

4. kapituluan, 50.300 euroren kontu-sail bat dago izendatua, bakearen eta giza eskubideen arloko elkarteentzako diru laguntzak ere hartzen dituena, eta hor badira berdintasun klausulak.



6.2.4. Kultur aniztasuna

Kultur Aniztasuna programa, *Hezkuntza* gastu politikan sartua, 350.086,32 eurora gutxitu da 2017an; udal aurrekontuen % 0,08 da. Programa honen helburu nagusiak dira herritarrak sentsibilizatzea bizikidetza sustatzeko eta arrazakeria nahiz xenofobia ekiditeko, herritar berriei harrera egitea eta haien partaidetza soziala bultzatzea.

2016an, 343.869,06 euroren diru izendapena izan zuen kontu-sail honek, aurrekontuen % 0,09. Gizarte segurantzaren eta langile bat mailaz aldatzearen ondorioz 1. kapitulua %9,23 jaitsi da, 2. kapitulua %7,36 igo da, eta zuzenketak eta gero, 4. kapitulua ere igo da.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	186.440,37	53,25
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	75.645,95	21,61
4	Transferentzia arruntak	88.000,00	25,14
GUZTIRA		350.086,32	100,00

2. kapitulua

2. kapituluaren diru izendapena 5.185,95 euro handitu da 2016tik 2017ra (% 7,36), 70.460 eurotik 75.645,95 eurora igaro baita.

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
226.99	Kultur Aniztasunaren inguruko jarduerak	72.545,95
226.99.01	<i>Sentsibilizazio kanpainak</i>	24.010,00
226.99.02	<i>Donostiar hiritartasun berria</i>	37.605,95
226.99.03	<i>Emakumeen gune interkulturala</i>	7.500,00
226.99.04	<i>Parte-hartzea</i>	3.430,00

Programak emakumeentzako partida espezifiko bat dauka, 7.500 eurorena, Emakumeen Etxean topaketarako eta ahalduntzerako espazio bat dinamizatzeko balio duen, Berdintasun Sailarekin elkarlanean. Kontu-saila 150 euro handitu da 2016 urtekoaren aldean.

4. kapitulua

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
480.01	Errefuxiatu politikoentzako laguntza	30.000,00
481.01	Kultur aniztasunari buruzko proiektuei diru-laguntzak	53.000,00
481.02	Beste diru-laguntza zuzenak	5.000,00
	4. kapituluaren guztizkoa	88.000,00



Kultur aniztasunaren arloko irabazi asmorik gabeko elkarteentzako diru laguntzek 53.000 euroren izendapena dute, 2016an baino 20.000 euro gehiago, zuzenketei esker, eta berdintasun klausulak dituzte oinarri arautzaileetan.



6.2.5. Donostia Kultura

Donostia Kultura Donostiako Udalaren mende dagoen enpresa erakunde publiko bat da, udal politika kulturala bideratzen duena, eta herritarrei kulturarekin eta jai herrikoiekin lotutako zenbait zerbitzu eskaintzen dizkie, nortasun indibiduala eta kolektiboa osatzen duten adierazpen gisa ulertuak, azken horiek. Erakundearen beste helburu batzuk dira udalerriko ondare kulturala eta artistikoa mantentzea, sormenaren eta ekoizpenaren arloko bertako kultura ekimenak babestea eta kultura anitza, irekia eta tolerantzia sustatzea, besteak beste.

Donostia Kulturaren 2017rako aurrekontua 28.525.358,95 € da, 2016an baino 828.951,73 € gehiago (% 2,9 handitu da). Diru sarreren atalean, Donostiako Udalaren ekarpena da diru iturririk garrantzitsuenak, 21.719.227,66 €; eta haren atzetik daude espazioak alokatzeagatiko eta zerbitzuak emateagatiko ordainak eta beste erakunde batzuen diru laguntzak.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
3	Tasak eta bestelako zergak	11.868.272,72	41,64
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	14.856.499,58	52,13
4	Transferentzia arruntak	616.591,84	2,08
5	Inbertsio errealak	1.157.859,17	4,06
7	Finantza-aktiboak	26.135,64	0,09
GUZTIRA		28.525.358,95	100,00

Donostia Kultura barneko Berdintasun Plan bat ezartzen ari da langileentzat. Plan hori garatzeko, 11.000 euroren kontu-sail zehatz bat dago aurreikusita.

- » Berdintasun plan espezifiko horretaz gain, Donostiako Udalaren Berdintasunerako III. Planaren Koordinazio Batzorde Teknikoan ere hartzen du parte Donostia Kulturak. Hor egin behar dituen ekintzek zerikusia dute erakundearen jarduerarekin eta ez hainbeste langileen antolaketarekin.
- » Plan honen esparruan, 2016an, neurri hauek hartu dira:
- » Berdintasuna bermatzeko klausulak sartzea diru laguntzetan, hala jarduera artistiko-kulturaletara bideratzen direnetan nola jaiak antolatzeko ematen direnetan (danborrada, Olentzero, inauteriak eta abar) eta laguntza lerro berri bat, jaialdiak antolatzeko.
- » Donostia Kulturako langileei berdintasun arloko prestakuntza ematea.
- » Sariak, bekak eta abar banatzeko epaimahai paritarioak eratzea.



- » Sexuaren arabera bereizitako adierazleak sartzea, esaterako neguko ikastaro eskaintzaren partaidetzan.
- » Emakumeen sormen artistikoa eta kulturala sustatzea eta babestea musikaren, literaturaren edo arte eszenikoen alorretan.

2015eko datuen arabera, **Donostia Kulturako bazkideak 90.125 dira, horietatik 53.895 emakumeak (% 59,80) eta 36.320 gizonak (% 40,20)**. Hainbat hilabeteko iraupena duten 570 **ikastaroetan** parte hartu duten 8.049 pertsonen artean, **% 75 emakumeak ziren**. Eta liburutegi zerbitzuan, berriz, 2014an, lehenengoz, 6.014 bazkide egon dira izena emanda, 3.314 emakume (% 55) eta 2.700 gizon (% 45).

Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko 2013. urteko diagnostikoak dioten bezala:

“Emakumeek gehiago parte hartzen dute aisia pasiboko ikastaro eta jardueretan (ikuskitun eta zaletasun artistikoak) Emakumeek sorkuntza kultural eta artistikoko ikastaro eta fase amateurretan duten nagusitasuna apaldu egiten da maila profesionalizatuagoetan. Gizarteak ez du rol horien aldaketa bultzatzen (kristalezko sabai kulturala), eta emakumeek, jasotako sozializazioaren ondorioz, zailtasunak dituzte beren burua agente, sortzaile eta artista gisa agertzeko”.

Datuak sexuaren arabera bereizita jasotzeko ahalegina egin den arren, ez dago erregistrorik lantegiak, hitzaldiak, kontzertuak edo erakusketak egiteko kontratatu diren pertsonen sexua zein den jakiteko. Komenigarria litzateke erregistro hori sortzea, emakume gehiago kontratatzeke eta aipaturiko “kristalezko sabai kultural” hori hausteko.



6.2.6. Musika eta Dantza Eskola

Musika eta Dantza Eskola udalaren erakunde autonomiaduna da. Irakaskuntza ez-arautuaren helburuak bere egiten ditu kultura sortu, kritikatu eta hedatzeari dagokienez, musika eta dantza diziplinen alorra berezizat eta lehentasunezkoztat edukita.

Arduratzat diru ikasketa antolatzea, irakaskuntza bideratzea eta Ikasketa Planean sartutako diziplinen ikerketa garatzea, baita bere alorreko zerbitzu publikoa emateari berez dagokion administrazio gestioa.

2015/2016 ikasturtean, eskolak 1.870 ikasle zituen, horietatik **% 52,7 emakumeak**. Aldaketak izan badira ere, genero estereotipoen arabera banatutako espezialitate hautaketa jarraitzen da: Emakumeak nagusitzen dira kora kantuan (% 75,6), zeharkako flautan (% 74,6), biolan (% 82,4), oboen (% 72,7), dantza klasikoan (% 91,4), pianoan (% 69)... eta gizonak nagusitzen dira tronpan (% 80), tronpetan (% 83,6), tronboian (% 82,9), baxu elektrikoan (% 83,3), baterian (% 79,4)

Especialitatea	Guztira	Emakumeak		Gizonak	
		Zbk.	%G	Zbk.	%G
Ikasle guztira	1.870	985	52,7%	885	47,3%
Matrikula guztira	1.979	1.053	53,2%	926	46,8%
Kontaktua	523	294	56,2%	229	43,8%
Kantu korala	156	118	75,6%	38	24,4%
Zeharkako flauta	63	47	74,6%	16	25,4%
Oboea	22	16	72,7%	6	27,3%
Klarineta	108	51	47,2%	57	52,8%
Fagota	8	3	37,5%	5	62,5%
Tronpa	25	5	20,0%	20	80,0%
Trompeta	67	11	16,4%	56	83,6%
Tronboia	35	6	17,1%	29	82,9%
Tuba	6	0	0,0%	6	100,0%
Perkusioa	35	8	22,9%	27	77,1%
Biolina	84	57	67,9%	27	32,1%
Biola	34	28	82,4%	6	17,6%
Violoncello	34	21	61,8%	13	38,2%
Kontrabaxua	11	4	36,4%	7	63,6%
Moko-xirula	9	6	66,7%	3	33,3%
Saxofoia	67	18	26,9%	49	73,1%
Bombardinoa	3	2	66,7%	1	33,3%
Txistu	29	10	34,5%	19	65,5%
Trikitia	33	21	63,6%	12	36,4%
Dantza	35	32	91,4%	3	8,6%



Especialitatea	Guztira	Emakumeak		Gizonak	
		Zbk.	%G	Zbk.	%G
Pianoa	261	180	69,0%	81	31,0%
Akordeioa	19	6	31,6%	13	68,4%
Gitarra	40	16	40,0%	24	60,0%
Bak. talde instrumental	116	53	45,7%	63	54,3%
Baxu elektrikoa	30	5	16,7%	25	83,3%
Bateria	63	13	20,6%	50	79,4%
Gitarra elektrikoa	34	8	23,5%	26	76,5%
Teklatuak	29	14	48,3%	15	51,7%

Musika eta Dantza Eskolak Udalaren Berdintasunerako III. Plana ezartzeko sailarteko Batzorde Teknikoan parte hartzen du. Eta barruko Berdintasun Talde bat eratu dute berdintasuna zeharkako bihurtzeko bere kudeaketan eta zerbitzu ematean.

Musika Eskolako aurrekontua 2017rako 4.041.693,23 € da. Hiru aurrekontu-programa barne hartzen ditu: Musika eta Dantza Eskola, Musika eta Dantza Eskola (Liburutegia) eta Musika eta Dantza Eskola (Txistulariak). 2016an 4.789.739,20 € izan zen, 748.045,97 euro gehiago aurten baino.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	3.572.087,23	88,38
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	381.406,00	9,44
4	Transferentzia arruntak	16.200,00	0,40
6	Inbertsio errealak	72.000,00	1,78
GUZTIRA		4.041.693,23	100,00

Berdintasunerako kontu-sail espezifiko bat sartu da, 3.600 eurorena, argitalpenetarako; zehazki, 226.09 kontu-saila Kudeatzailearen Bulegoa jardueran.



6.2.7. Gazteria

Gazteria programa, *Kultura* gastu politikan sartua, 2.262.509,99 € da 2017an, udal aurrekontuen % 0,54. 2016an, 1.953.078,32 € izendatu ziren kontu-sail honetarako, aurrekontuen % 0,52.

Programa horren helburua da hiria erakargarria izatea haur, nerabe eta gazteentzat, kalitatezko aisialdi hezigarria eskaintzea eta gazteei lana eta etxebizitza lortzen laguntzea. Sai honek gogoeta estrategikoa egin du eta 2017-2020 denboraldirako helburuak eta erronkak ezarri ditu, horien artean, genero berdintasuna.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	445.063,71	19,67
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	1.328.966,28	58,74
4	Transferentzia arruntak	157.480,00	6,96
6	Inbertsio errealak	331.000,00	14,63
GUZTIRA		2.262.509,99	100,00

2. kapitulua

Gazteria programako 2. kapituluan 1.328.966,28 euroren izendapena egin da 2017an, 44.213,09 € gehiago 2016an baino.

Kontu-saila	astuaren azalpena	Zenbatekoa
226.06	Gizarte-kultur jarduerak	86.925,51
226.06.02	<i>Gazte elkartrukeak: gazteak eta Europa</i>	10.523,69
226.06.03	<i>Haur eta gazte-aisialdia (denbora librea eta Gabonak)</i>	49.766,12
226.06.04	<i>Gazte plana</i>	18.000,00
226.06.04	<i>Hedapen kulturala</i>	6.500,00
226.06.05	<i>Hedapen kulturala</i>	16.635,70
226.06.06	<i>Sustapen kulturala</i>	20.500,00
227.04	Zerbitzu-enpresak	1.070.000,00

Gazte informaziorako zerbitzua, haurtxokoen eta gaztelekuen sarea, aisialdiko programak eta gazteen partaidetza dira Gazteria Atalaren jardunaren zutabeak, eta islatuta daude aurrekontuan.

2. kapituluko kontu-sail handiena haurtxoko eta gaztelekuen sarearena da (227.04); ekipamendu horiek estrategikoak dira genero ikuspegitik, aukera ematen baitute haurrekin eta gazteekin zuzenean lan egiteko eta zuzenean ezagutzeko haien behar eta interesak, hezkuntza ez-formaleko programen barruan. Espazio horiek Donostiako auzoetan banatuta daude, sare handi bat osatzen dutela, eta kanpoko kontratazio bidez kudeatzen dira. Esleitutako azken kontratuaren



baldintzetan jasota zeuden berdintasuneko klausula batzuk, eta horri esker, zentro horietako hezitzaileek berdintasun arloko prestakuntza daukate, Udalaren Berdintasun Plana ezagutzen dute eta koedukazioko jarduerak egiten dituzte haur eta gazteekin (2017an horrelako jardueretan sakontzen jarraituko dute).

Berdintasunerako kontu-sail espezifiko bat (226.06.07) sartu da, 20.500 eurorena, programetan eta jardueretan indarkeria matxistari aurre egiteko.

Programa horren barruan badira aisialdi programetarako kontu-sailak ere: Gabonetakoa, hurrei bideratua, eta aisia kulturalakoa, nerabeei eta gazteei bideratua. Lehenengoan, genero ikuspegia duten jarduera hezitzaileak sartu dituzte aurreko edizioetan, eta alderdi horrek iraunkorra izan behar du eskaintzan.

4. kapitulua

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
432.01	DK-rekin ikus-entzunezko hitzarmenatarako diru-ekarpena	2.000,00
481.01	Gazte-elkarteak	85.300,00
481.02	Haurtxokoak (udal-haurtxoko gabeko auzoetako haur-ekipamenduetarako hitzarmenak)	64.657,00
481.03	Beste diru laguntza zuzenak	5.523,00
	4. kapituluaren guztizkoa	157.480,00

4. kapituluan gazte elkarteentzako diru laguntzak sartuta daude (481.01 kontu-saila), eta horiek berdintasun klausulak dituzte oinarri arautzaileetan.

6. kapitulua

6. kapituluan, 331.000 euroren kontu-sail bat izendatu da gazteentzako eta haurrentzako ekipamenduetarako.



6.2.8. Donostia Kirola

Kiroletako Udal Patronatua Udalaren Erakunde Autonomoa da, udalerrian kirola garatzea xede duena, kirola pertsonen oinarrizko eskubidea dela iritzita, kirolaren alde hezigarria, jolas alderdia, alderdi lehiakorra edo ikuskizun gisa aintzat hartuta.

Kirol instalazioak kudeatzen ditu, zuzenean (Belodromoa, Gasca-Atano, Bidebieta, Donostia Arena, Intxaurren, Altza, Egia, Benta Berri, Etxadi) edo zeharka (Zuhaizti kiroldegia, Martutene FK, Berio FK, Matigoxotegi FK, Cesar Benito FK, Puio FK, Loiolako Erriberak KK).

Kirol Txartela eta kirol kanpainak kudeatzen ditu. Kirol Txarteleko abonatuaren kopurua 48.000tik gorakoa izan da 2015ean (48.453), horietatik % 45,4 emakumeak dira.

Sentsibilizazio-kanpainak egiten ditu. Horien artean, kanpaina espezifiko bat, Goazen neska! kanpaina, eliteko emakume kirolariak ikusgai jartzea ez ezik, emakume eta neskei erreferente positiboak eskaintzea eta, era horretara, emakumeen kirola sustatzea xede duena.

Eta diru laguntza nominatiboak eta lehiaketa bidezkoak. Zuzeneko diru laguntzen kasuan, 2016an 686.000 euro eman zituen; horietatik, 117.150 euro (% 17), emakumeen kirol taldeei (55.000 € Bera Berari, 12.150 € Errealari eta 50.000 € Donostibasketi). Lehiaketa bidezko diru laguntzei dagokienez, ekintza positiboa ezarrita dute: klubetan federatuta dauden emakumeei puntuen bikoitza ematen zaie. Ez dugu sexuen arabera bereizitako daturik laguntza horiei buruz.

Kiroletako Udal Patronatuaren aurrekontua 14.288.147,25 € da 2017rako, 2016an baino 556.532 € gutxiago.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	4.070.739,75	28,69
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	8.128.007,50	57,29
3	Finantza-gastuak	23.500,00	0,17
4	Transferentzia arruntak	1.419.650,00	10,01
6	Inbertsio errealak	646.250,00	3,84
GUZTIRA		14288147,25	100,00

2017ko udal aurrekontuetan berdintasunerako kontu-sail espezifiko bat sartu da, 4.235 eurorena, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean eta Berdintasunerako III. Plana ezartzeko antolatzen diren jarduerara zehatzetarako.



6.3. Oinarrizko zerbitzu publikoak

6.3.1. Udaltzaingoa

Udaltzaingoa programa, *Herri Segurtasuna eta mugikortasuna* gastu politikan sartua, 22.612.752,87 € da 2017an, udal aurrekontuen % 5,43. 2016an, kontu-sail honetarako 22.480.533,15 € izendatu zituzten (aurrekontuen % 5,94); 132.219,72 € gehiago.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	21.163.722,53	93,59
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	1.304.030,34	5,77
6	Inbertsio errealak	145.000,00	0,64
GUZTIRA		22.612.752,87	100,00

2. kapitulua 158.167,88 € handitu da, neurri handi batean gas, argindar eta garbitasun gastuak bere gain hartu dituelako Morlanseko kokapen berrian.

Programa honetan 1. kapitulua funtsezkoa da, aintzat hartuta udaltzainen arreta eraso sexistak jasan dituztenei.

udaltzaingoa oraingoz ez du parte hartzen Udalaren Berdintasunerako III. Plana ezartzeko departamentuen arteko Batzorde Teknikoan



6.3.2. Hiri mugikortasuna

Hiri Mugikortasuna programa, *Herri Segurtasuna eta mugikortasuna* gastu politikan sartua, 8.943.561,86 euros € da 2017an, udal aurrekontuen % 2,15. 2016an, kontu-sail honetarako 9.034.221,83 € izendatu zituzten (aurrekontuen % 2,39), aurreko urtean baino 90.659,97 euros gutxiago; horren arrazoa da inbertsioen kapitulua jaitsi egin dela.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	5.243.748,09	60,11
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	2.049.313,77	23,49
4	Transferentzia arruntak	10.500,00	,12
6	Inbertsio errealak	1.640.000,00	16,28
GUZTIRA		8.943.561,86	100,00

2. kapitulua

20017an, Hiri Mugikortasuna programako 2. kapitulurako 2.049.313,77 € izendatu dira. 2016, 1.887.774,34 € ziren; beraz, % 8,56 handitu da. Hazkunde hori udal eskumenekoa den trafiko kontrolarekin lotutako zerbitzuak emateko lizitazio publiko berriari dagokio.

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
226.99	Beste hainbat gastu	150.354,00
226.99.01	Beste hainbat gastu	500,00
226.99.03	Bizikleta feria	30.000,00
226.99.05	Mugikortasun jasangarriaren astea	5.572,00
226.99.07	Eskola bidea	46.000,00
226.99.11	CLA proiektua	32.350,00
226.99.14	Sumps-Up	35.932,00

4. kapitulua

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
481.01	Bizikletaren erabilpena sustatzeko Kalapie-ri diru-ekarpena	3.000,00
481.02	Bizikleta Behatokirako Cristina Eneari diru-ekarpena	7.500,00
	4. kapituluaren guztizkoa	10.500,00



6. kapitulua

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
601.01	Askatasunaren hiribide inguruko birmoldaketa	100.000,00
601.03	Trafikoa lasaitzea Aieten	150.000,00
601.99.02	Hobekuntzak bidegorri sarean	200.000,00
601.99.06	30 guneak (Altza, Bidebieta, Hego Intxaurreondo)	140.000,00
623.02.01	Semaforo instalazioak	100.000,00
624.01	Ibilgailuak	130.000,00
627.01	Bizikletaren erabilera sustatzea	200.000,00
627.02	Trafiko handia lasaitzea	540.000,00
627.03	Oinezkoentzat Soft	80.000,00
	6. kapituluaren guztizkoa	1.640.000,00

Donostiako emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoaren arabera, emakumeak gehiago mugitzen dira oinez. Hainbat azterlanek erakutsi dute mugikortasun sostengagarria lagungarri gertatzen dela kontziliaziorako eta erantzunkidetasunerako. Mugikortasun sostengagarria harago doa, eta hurbileko zerbitzuak behar ditu auzoetan (eskolak, haurtzaindegia, osasun zentroak, dendak eta abar) jendeak joan-etorri laburrak egiteko, ahal dela oinez.

Ikuspegi horretatik, oso interesgarria da **Eskola Bidea**, Mugikortasun Zuzendaritzak sustatutako programa; izan ere, neska-mutilen autonomia sustatzen du etxetik eskolara taldean joateko, boluntarioen laguntzaz. Programa horretarako 46.000,00 euroren kontu-sail bat izendatu da (226.99.07).

Bizikletaren erabilerari buruzko datuei begiratuta, badago horrelako oreka bat emakumeen eta gizonen artean. 2016an egindako azken kontaketeak agertzen dutenez, hau da sexuen araberrako banaketa: Kontxa (% 39 emakumeak, % 61 gizonak), Federico Garcia Lorcak igogailu ingurua eta Cristina Enea parkea (% 49 emakumeak, % 51 gizonak), Kurasaaleko zubia eta Zurriola hiribidea (% 41 emakumeak, % 59 gizonak), Santa Katalina zubia (% 36 emakumeak, % 64 gizonak), baina ez da beti hala, baldin eta aldeei edo bizikleta zaleen adinari erreparatzen badiegu. Emakumeek nahiago dituzte erdialdeko guneak bizikletaz ibiltzeko, eta ez hainbeste kanpoko aldeak. Gainera, 60 urtetik gorako emakumeen artean bizikletaren erabilerak nabarmen egiten du behera.



Bizikletak alokatzeko Dbizi sistema publikoa 2015ean aldatu zen eta gaur egun bizikleta elektrikoak aloka daitezke. Zerbitzuan izena eman dutenen % 43 emakumeak dira, eta % 57 gizonak. Hala ere, ez daukagu zerbitzuaren erabilera errealari buruzko daturik.

Autobusaren erabilerari dagokionez, 2015eko uztaila eta 2016ko ekaina bitarteko bidaien zenbateko metatua 21.043.540 da, eta horietatik, % 67,5 emakumeek eginak eta % 32,5 gizonak.

Txartel arruntarekin egindako bidaien kasuan (bidaia guztien % 60,7 hartzen du), % 71,1 emakumeek egindakoak izan dira. Ehunekoak orekatuagoak dira, ordea, beste txartel modalitate batzuetan, hala nola gazteentzako txartelean: bidaien % 57,3 emakumeei dagozkie eta % 42,7 gizonari. Hala eta guztiz ere, emakume gazteek gizonak baino 338.942 bidaia gehiago egin dituzte; mutilen artean mota ohikoagoa izatea izan daiteke alde hori azaltzeko arrazoia. Txartel sozialean ere alde handiak daude (% 63 emakumeak, % 37 gizonak), baina ez dira txartel arrunteko aldeak bezain nabarmenak.

Hori guztia kontuan hartuta, baieztatu dezakegu emakumeen eta gizonen mugitzeko moduan desberdintasunak daudela, sexuaren arabera lan banaketatik eratorriak. Hala bada, adin ertaineko gizonak nagusiki ibilgailu pribatua erabiltzen dute ordaindutako lanarekin eta aisiarekin lotutako joan-etorrietarako, eta emakumeak, aldiz, batik bat oinez edo garraio publikoan mugitzen dira, gehiagotan eta bide laburragoetan, zaintzarekin, harreman pertsonalekin eta ordaindu gabeko lanarekin lotutako arrazoiengatik.

Sexu bakoitzak erabiltzen dituen garraio motei buruzko datuak aintzat hartuta, komeni da gogoan edukitzea garraio publikoko sarea hobetzera bideratutako gastuak onura handiagoa ekarriko diela emakumei eta horiek zaintzen dituzten pertsonari: adingabeak eta dependentzia duten pertsonak. Aldiz, aparkalekuetan edo ibilgailu pribatuen joan-etorriak hobetzeko proiektuetan inbertituz gero, onuradun nagusiak gizonak izango dira.

Era berean, kontuan hartu behar dugu espaloian eraikitako bidegorriek espazioa eta segurtasuna kentzen dizkietela oinezkoen, batez ere ahulenei (adinekoak eta haurrak), eta arazoak sortzen dituztela oinezkoen eta txirrindularien artean. Motordun trafikotik hurbil dauden babes gutxiko bidegorriak ez dira oso erakargarriak emakumeentzat, eta arriskutsuagoak dira txirrindulari guztientzat; beraz, bidegorri seguruetan inbertitzea komeni da, alegia, trafiko horren abiadura moteltzen lagunduko duten eta oinezkoen pasabideetan ahalik eta eragozpen



gutxien sortuko duten bidegorrietan. Era berean, interesgarria izango litzateke auto gidarientzako sentsibilizazio kanpainak egitea autoen eta bizikleten arteko bizikidetza hobea sustatzeko, eta emakumeak, bereziki 60 urtetik gorakoak, bizikleta erabiltzera animatzea, bizikleta elektrikoen alokairu publikoko sistemari buruzko ikastaroak eta erakustaldiak eginez.

Azkenik, eredu maskulinoa orokortzea eragotzi nahi bada (hau da, kasu honetan, emakumeek gizonen garraio ohiturak hartzea) eta mugikortasun sostengagarriaren aldeko apustua egin nahi bada, aztertu egin behar da nola erakar daitezkeen gizonak garraio publikoaren sarera, eta, hortaz, sentsibilizazio kanpainak, halakorik bada, gizonengana bideratuta egon beharko dute. Bestalde, hiriko trafikoari eta mugitzeko moduei buruzko edozein azterlanek kontuan hartu behar luke genero ikuspegia, arlo horretan desberdintasun handiak baitaude, deskribatu dugunez.



6.3.3. Hirigintza

Hirigintza programa, *Etxebizitza eta Hirigintza* gastu politikan sartua, 29.918.492,13 € da 2017an, udal aurrekontuen % 7,19. 2016an, kontu-sail honetako diru izendapena 22.633.596,86 eurorena zen (aurrekontuen % 5,98); 7.284.895,27 € handitu da (% 32,19).

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	3.916.655,96	13,09
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	444.105,35	1,48
6	Inbertsio errealak	20.058.218,56	67,04
7	Kapital-transferentziak	5.499.512,26	18,38
GUZTIRA		29.918.492,13	100,00

Programa honetako kapitulu garrantzitsuena inbertsio errealena da; kapitulu horretako aurrekontu osoaren %67,04 biltzen du.

2. kapituluan, **berdintasunerako zenbateko bat sartu da, 3000 eurorena**, Berdintasunerako III. Planean aurreikusitako neurriak ezartzeko



6.3.4. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Etxegintza publikoaren aurrekontua 2017rako 28.948.822,47 € da, 2016an baino 11.046.213,38 € gehiago (% 61,70 handitu da).

Udalaren ekarpena 128.690,77 € da. Era berean, Udalak 1.350.000 euroren ekarpena egiten du 2017ko aurrekontuan enpresaren kapital gastua finantzatzeko.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	1.397.063,34	4,83
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	3.010.831,17	10,40
3	Finantza-gastuak	1.243.407,85	4,30
6	Inbertsio errealak	18.744.850,00	64,74
9	Finantza-pasiboak	4.552.670,11	15,73
GUZTIRA		28.948.822,47	100,00

ALOKABIDE zerbitzutik, beren etxebizitza alokairuan eman nahi duten eta etxebizitza bat alokatu nahi dutenen artean bitartekaritza egiten duen zerbitzutik, lehentasuna ematen diote indarkeria matxistari aurre egin beharrean diren emakumeei ostatu emateari, gizarte zerbitzuen eskaeren arabera.

Beste zerbitzuetako bat da 65 urtetik gorakoei alokairuan, 243 euroko errentaren truke, apartamentuak eskaintzea, bi logelakoak, pertsona batek zaintzera joan behar badu ere, eta 35 urtetik beherako gazteei, logela batekoak, eta gehienez 5 urtetarako.

Beste kontu-sailletako bat da birgaitzeko diru laguntzena bizilagunen elkarreentzat eta familientzat. Laguntza horien xedea da adineko pertsonen bizi kalitatea (mugikortasuna, segurtasuna, eraginkortasun energetikoa) hobetzea.



6.3.5. Bide publikoak

Bide Publikoak programa, *Etxebizitza eta Hirigintza* gastu politikan sartua, 2.674.968,66 € da 2017an, udal aurrekontuen % 0,64. 2016an, kontu-sail honetako diru izendapena 3.050.560,29 eurorena zen (aurrekontuen % 0,81); 375.591,63 € gutxitu da (% 12,31).

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	361.791,66	13,53
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	910.400,00	34,03
6	Inbertsio errealak	1.402.777,00	52,44
GUZTIRA		2.674.968,66	100,00

2. kapitulan, 119.337,41 € gutxiago dira, 2016ko exekuzio-aurreikuspenera egokitu baita.



6.3.6. Herri argiteria

Herri Argiteria programa, *Komunitate Ongizatea* gastu politikan sartua, 4.235.091,82 € da 2017an, udal aurrekontuen % 1,02. 2016an, kontu-sail honetarako 4.084.908,37 € izendatu zituzten (aurrekontuen % 1,08); 150.183,45 € gehiago dira aurten.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	51.826,82	1,22
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	3.988.265,00	94,17
6	Inbertsio errealak	195.000,00	4,61
GUZTIRA		4.235.091,82	100,00

2. kapitulan izandako hazkundera bide publikoen programan zegoen iturri apaingarriak mantentzeko gastua hona ekartzearen ondorio da, eta argindar horniduraren aurrekontua 2016ko exekuzio-aurreikuspenera egokitu izanarena ere bai.



6.3.7. Parkeak eta lorategiak

Parkeak eta Lorategiak programa, *Ingurumena* gastu politikan sartua, 6.707.720,44 € da 2017an, udal aurrekontuen % 1,61. 2016an, kontu-sail honetako diru izendapena 5.889.909,15 eurorena zen (aurrekontuen % 1,56); 817.811,29 € handitu da (% 13,88). Hazkunde handiena 6. kapituluan dago, 2016an 50.000 € izatetik 2017an 535.000 € izatera igaro baita.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	529.900,44	7,90
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	5.642.820,00	84,12
6	Inbertsio errealak	535.000,00	7,98
GUZTIRA		6.707.720,44	100,00



6.3.8. Hondartzak

Hondartzak programa, *Ingurumena* gastu politikan sartua, 2.167.158,05 € da 2017an, udal aurrekontuen % 0,52. 2016an, kontu-sail honetako diru izendapena 2.261.697,28 eurorena zen (aurrekontuen % 0,60); 94.539,23 € gutxitu da.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	47.541,35	2,19
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	2.023.616,70	93,38
6	Inbertsio errealak	96.000,00	4,43
GUZTIRA		2.167.158,05	100,00

2. kapituluan izandako 135.441,26 euroren jaitsiera 2016ko lizitazio publiko berriei zor zaie, besteak beste.



6.4. Jarduera ekonomikoak

6.4.1. Hiri mantentze eta zerbitzuak: Zuzendaritza eta administrazioa

Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa programa, *Azpiegiturak* gastu politikan sartua, 1.732.418,30 € da 2017an, udal aurrekontuen % 0,42. 2016an, kontu-sail honetarako 1.166.097,98 € izendatu zituzten (aurrekontuen % 0,31); 566.320,32 euros (48,57%).

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	1.002.718,30	57,88
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	79.700,00	4,60
6	Inbertsio errealak	650.000,00	37,52
GUZTIRA		1.732.418,30	100,00

Berdintasunerako kontu-sail espezifiko bat (226.99.02) sartu da, **25.000,00** eurorena; 20.000 € puntu kritikoei dagokienez hobekuntzak egiteko eta 5.000 € genero ikuspegia aintzat hartuko duten partaidetza prozesuetarako.

Hirian seguru sentitzen ez diren emakumeen kopurua gizonena halako bi da, eta horrek eragina dauka emakumeen mugimendu askatasunean. Orain dela bi urtetik, Hiri Mantentze eta Zerbitzuen Zuzendaritzak hiriaren osaera eta mugikortasuna genero ikuspegitik aztertzen duen sailarteko udal talde batean parte hartzen du, emakumeen ustez arriskutsuenak diren hiriko gunetan arrisku hori desagerrarazteko edo arintzeko.



6.4.2. Proiektuak eta obrak

Proiektuak eta Obrak programa, *Azpiegiturak* gastu politikan sartua, 12.416.353,85 € da 2017an, udal aurrekontuen % 2,98. 2016an, kontu-sail honetarako 8.723.561,86 € izendatu zituzten (aurrekontuen % 2,10); beraz, 6.965.695,52 € handitu da, inbertsioen eta kapital-transferentzien hazkundearen ondorioz, batez ere.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	2.110.662,88	17,00
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	58.379,59	0,47
6	Inbertsio errealak	9.143.600,79	73,64
7	Kapital-transferentziak	1.103.710,59	8,89
GUZTIRA		12.416.353,85	100,00



6.4.3. Donostia Sustaspena

Donostia sustapena enpresa erakunde publikoa da eta **hiria sustatzea eta haren garapen ekonomikoa eta soziala bultzatzea** ditu helburu berrikuntza, ezagutzen sorrera eta eraldaketa, sareko lana eta proiektuen sustapena eta kudeaketa oinarri hartuta, sostengagarritasun irizpideei jarraituz.

Donostia Sustapenak BerdintasunDerako III. Plana ezartzeko sailarteko Batzorde Teknikoan parte hartzen du. Komeniko litzateke, sozietate anonimo gisa, berdintasunerako barruko bere plan propioa izatea, beste udal enpresa batzuk bezala.

Donostia Sustapenaren 2017rako aurrekontua 13.539.990,83 € da, 2016an baino 1.755.838,18 € gehiago (% 14,39 handitu da). Diru sarreren atalean, Udalaren ekarpena da diru iturririk garrantzitsuenak, 5.586.133,65 €, eta 989.000 € enpresaren kapital-gastuak finantzatzeko.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	2.475.913,84	18,37
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	5690277,73	41,77
3	Finantza-gastuak	5.000,00	0,04
4	Transferentzia arruntak	3.823.300,00	28,36
6	Inbertsio errealak	989.000,00	7,34
9	Finantza-pasiboak	556.499,26	4,13
GUZTIRA		13539990,82	100,00

Donostia UP! enplegua sustatzeko planaren barruan, kontrataziorako laguntzak kudeatzen dituzte, langabetuei orientabidea ematen, klusterrak antolatzen eta hainbat proiektu bideratzen, 35 urtetik berakoentzako Talentu Berritzailea programa edo 45 urtetik gorakoentzako Esperientzia programa, kasu.

Era berean, babes teknikoa eta ekonomikoa eskaintzen dizkio ohiko ekintzailtzari, baina sektore estrategikoetako ekimenak sortuz, bai eta ekimen berriak sendotzeko babesa ere.

Emakumeentzako proiektu espezifikorik ez dago.

Plan garrantzitsua da genero ikuspegitik, baina *informazio gehiago, sexuaren arabera bereizitako datuak eta genero adierazleak* behar ditugu, programen genero eragina aztertzeko.



6.4.4. DBUS

Dbus enpresa publikoaren 2017rako aurrekontua 36.527.390,80 € da, 2016an baino 1.553.338,37 € gehiago (% 4,44 handitu da).

Diru sarreraren atalean, zerbitzuak emategatiko prezio publikoak dira sarrerarik garrantzitsuenak (19.471.012,32 €) eta atzetik, Udalaren ekarpena (14.180.981,53 €).

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	25.423.755,82	69,60
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	7.796.106,98	21,35
3	Finantza-gastuak	750,00	0,00
6	Inbertsio errealak	3.306.778,00	9,05
GUZTIRA		36.527.390,80	100,00

Dbus enpresa publikoa bigarren Berdintasun Plana ezartzen ari da. Plan horrek langile taldearen osaerari eragingo dio, eta haren xede nagusia da gidarien artean emakume gehiago izatea. Aurrerapen txikiak lortu dituzte helburu horretan. 2004tik 2016ra, emakume gidarien ehunekoa % 4,67tik % 8,3ra igo da. Gaur egun Dbuseko gidarrietatik 30 emakumeak dira eta 330 gizonak.

Aurrekontu proiektuaren esparruan genero ikuspegitik 2016an garatu den prozesuari esker, DBusek berdintasunerako **bi kontu-sail espezifiko sartu ditu aurrekontuetan, bata 3.000-5.000 eurorena Berdintasunerako Plana ezartzeko, eta bestea 1.500 eurorena, Berdintasun Taldea osatzen dutenei berdintasun arloko prestakuntza emateko.**



6.5. Jarduera orokorrak

6.5.1. Herritarren partaidetza

Herritarren Partaidetza, *Administrazio Orokorra* gastu politikan sartua, 786.376,20 € da 2017an, udal aurrekontuen % 0,19. 2016an, 1.144.147,27 € izendatu ziren kontu-sail honetarako, aurrekontuen % 0,30. Jaitsiera hori “Donostia Lagunkoia” eta “Ekialdeko barrutia” programa berrien sorreragatiko gastuaren lekualdaketa eta 2016. urteko exekuzio aurreikuspenaren doikuntzari zor zaie nagusiki.

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal gastuak	420.051,20	53,42
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	240.700,00	30,61
4	Transferentzia arruntak	75.625,00	9,62
6	Inbertsio errealak	50.000,00	6,36
GUZTIRA		786.376,20	100,00

2. kapitulua

Herri Partaidetza programako 2. kapituluko izendapena 196.000,00 € (% 44,88) gutxitu da 2016tik 2017ra, 436.700 eurotik 240.700 eurora igaro baita lehen esandako arrazoiengatik.

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
226.99	Beste hainbat gastu	205.000,00
226.99.02	Lurraldeko partaidetza	48.000,00
226.99.03	Asoziazionismoaren sustapena	18.000,00
226.99.04	Udal-transbersalitatea partaidetzarako	31.000,00
226.99.05	Sektore-biztanleria partaidetza	15.000,00
226.99.06	Sektore-tematika partaidetza	20.000,00
226.99.08	Auzolana	3.000,00
226.99.09	Herritarren galderak	15.000,00
226.99.10	Aurrekontu parte-hartzaileak	55.000,00

Herritarren Partaidetza Bulegoak, programaren arduradunak, aurreko urteetan bezala, **berdintasunerako zenbateko zehatz bat izendatu du 226.99.04 Udal transbersalitatea berdintasunerako kontu-sailaren barruan; 6.000 € zehazki, 3.000 Berdintasunerako III. Plana ezartzeko eta 3.000 “Puntu kritikoen mapa” parte hartzeko espazio iraunkorrerako.**



Bulegoak modu aktiboan parte hartzen du Berdintasunerako III. Plana ezartzen. Bulegoak abian jarritako ekintzetako batek zerikusia du **herritarren partaidetzako udal kontseiluekin**. Kontseiluak partaidetza organoak dira, udaleko zenbait sailek kudeatzen dituztenak esku hartzeko arloaren arabera (ingurumena, gizarte ekintza, berdintasuna, lankidetzak eta abar), eta haietan politikari eta teknikari arduradunek harreman zuzena dute dagokion arloan jarduten duten herritar erakundeetako ordezkariekin. Emakumeek eta gizonek udal kontseiluetan duten partaidetzari buruzko datuak bildu ditu Auzoak eta Herritarren Partaidetza Bulegoak, eta berdintasuneko klausulak ezarri ditu kontseilu horien oinarritzko araudi berrietan.

4. kapitulua

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
481.01	Diru-laguntzak eta hitzarmenak	56.625,00
481.02	Zubietako Batzordeari transferentzia	5.000,00
481.04	Igeldoko Herri Kontseiluari diru-laguntza	7.000,00
481.05	Osteguna / Irale auzo-elkarteei diru-laguntza	3.500,00
481.06	Oleta auzo-elkarteei diru-laguntza	3.500,00
	4. kapituluaren guztizkoa	76.625,00

4. kapituluan sartu dira irabazi asmorik gabeko elkarteentzako diru laguntzen deialdi bakarra, partaidetza proiektuetarako diru laguntzak eta lurralde izaerako elkarten gastu arruntetarako diru laguntzak.

6. kapitulua

6. kapituluan, 50.000 € sartu dira zerbitzuei lotutako inbertsioetarako, auzo elkarteentzako lokalak prestatzeko.



7. Gastu eraldatzailea 2017ko Udal Aurrekontuetan

2016an abiarazi zen prozesuaren ondorioz, udal aurrekontuetan hainbat hobekuntza jaso dira, aurrekontuen gastu eraldatzailearen ehunekoa handitzea ahalbidetu dutenak. Gastu eraldatzailetzat jotzen da genero desberdintasuna sostengatzen duten funtsezko egiturak eta desberdintasun horren muina diren mekanismoak hausten laguntzen duen gastua.

Atalak	1. kap.	2. kap.	4. kap.	6. kap.	GUZTIRA	%/aurrekontu osoa
Berdintasuna	392.661,24	191.999,8	106.000,00	57.000,00	747.661,04	0,18 %
Lankidetzaz			571.047,22		571.047,22	
Gizarte Ongizatea	115.000,00	6.500,00			121.500,00	
Hezkuntza programak		60.144,35			60.144,35	
Giza eskubideak		5.000,00			5.000,00	
Kultur aniztasuna		7.350,00			7.350,00	
Donostia Kultura		11.000,00			11.000,00	
Musika eta dantza eskola		3.600,00			3.600,00	
Gazteria		20.500,00			20.500,00	
Donostia Kirola		4.235,00			4.235,00	
Hirigintza		3.000,00			3.000,00	
Hiri mantentzea eta zerbitzuak		25.000,00			25.000,00	
DBus		4.500,00			4.500,00	
Herritarren partaidetza		6.000,00			6.000,00	
GUZTIRA	507.661,24	348.829,15	677.047,22	30.000,00	1.590.537,61	0,38 %



8. Zintzilik geratutako gaiak

8.1. Hobekuntzak aurrekontuko programetan eta kontu sailetan

Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan 2. kapitulari dagokionez:

- » **Berdintasuna.** Oso-osorik udalerrian dauden genero hausturak ezabatzea eta berdintasuna sustatzera bideratzen den Berdintasuna aurrekontu programaren pisua handitzea.
- » **Prebentzioa, Haurrak eta Familia.** Indarkeria matxistaren aurkako prebentzio programako 227.04.02 kontu-saila handitzea.
- » **Udaltzaingoa.** Udaltzainei indarkeria matxistari buruzko prestakuntza emateko kontu-sail bat sartzea.
- » **Donostia Sustapena, Etxegintza.** Berdintasunerako III. Plana garatzeko kontu-sail espezifiko bat sartzea, zerbitzu eskaintzan genero ikuspegia txertatzeko.
- » **DBUS.** Laugarren kontu-sail bat jasotzea gaueko autobusetan “eskatutako geldialdiak” egiteko aukera ezartzeko.

Inbertsioak 6. Kapitulari dagokionez:

- » **Berdintasuna.** Emakumeen Etxea egokitzeko kontu-sail bat sartzea.
- » **Udaltzaingoa.** inbertsioak indarkeriari aurre egin behar dioten emakumeentzako segurtasun neurrietan, salaketa jartzera doazen emakumeentzako areto egokiak...
- » **Gizarteratzea.** Indarkeriari aurre egin behar dioten emakumeentzako gaueko ostatuak egokitzeko inbertsioak.
- » **Donostia Kultura.**
 - » Kontratatutako pertsoneri buruzko informazioa biltzeko datu basea egokitzeko inbertsioak.
 - » Arte sorkuntzan emakumeek presentzia handiagoa izatea sustatzeko inbertsioak egitea.



8.2. Genero eragina sakonago ebaluatzeko irizpideak

- » Hautatu diren aurrekontu programetan sartu diren berdintasunerako kontu-sail espezifikoen **gastu-exekuzioaren segimendua egitea** eta garatutako jarduerak aztertzea.
- » **Hautatu diren aurrekontu programen eragina ikusgai jartzea**; horretarako beharrezkoa izango da udal atal, enpresa eta erakundeek proposatutako genero adierazleen balioak ematea.
- » **Aurrekontu programen azterketa pixkana-pixkana hedatzen jarraitzea**, genero ikuspegitik garrantzitsua den jarduera egiten duten udal enpresetara eta erakunde autonomiadunetara.